



5.- UNITATEA: ORAIN, GU!

1. EZAGUTZAK ASTINDUZ

Aurreko unitatean herritarrengan ondorio handiak eta larriak ekarri zituzten uholdeak izan genituen abiapuntu. Garai hartako herritarrek konponbidea eman behar izan zioten naturak sortu eta herriak, zuen egituratzearen ondorioz, sustatu zuen hondamendi naturalari. Horretarako, hartu zituzten beste neurri batzuen artean, ibaiaren arroa desbideratzea izan zen.

Gaia landu genuenean aipatu genuen ibaiaren arroaren desbideratze lan horiek Gerra Zibileko langile batailoiak egin zituztela; hau da, Gerra Zibilean preso hartu zituzten errepublikanoek eta abertzaleek.

Langile batailoiak bere barnean oso estuki loturik dituen bi ideia horiek hartuko ditugu unitate honen atariko gisa. Hondamendia, alde batetik, eta gerra, bestetik.

XVIII. eta XIX. mendeetan matxinada eta iraultza ugari gertatu ziren, horietako asko Europako herrialdeek zituzten kolonietan. Europar estatuetan zenbait iraultza bolada izan ziren 1820an, 1830ean eta 1848an. XIX. mendearen erdialderako, gobernu liberalak absolutismoari gailendu zitzaizkion Europako herrialde askotan: Frantziako Iraultza, 1789; Espainiako Independentzia Gerra, 1808; Europako Iraultza-boladak, 1848; eta, Errusiako Iraultza, 1917.

Beraz, XIX. mendea gerra artean joan zen. Mende horretan ere bi Karlistadak gertatu ziren. Gero, XX. mendean, Gerra Zibila izan zen.

Garai hartan aurrera eginez, gerraondorenak herrian eta herritarrengan sortutako enbelduak jarraituz, aurreko mendean hasitako industrializazio prozesuari helduko diogu eta orduan izan zuen bultzada baliatuz, berarekin ekarri zituen beste hainbat aldagaietan murgilduko gara: hala nola, immigrazioa, kultura aniztasuna, hirigintza eta abar.

Amaitzeko, herriaren koordinatuak ezagutu eta kokapen geografikoan sakonduko dugu. Baita azpiegitura aldetik duen antolaketan ere.

2. ZER DAKIGU?

Aurreko unitateetan egin dugun moduan, unitate honen hasieran ikasleek landuko diren gaien gainean aurretik dituzten ezagutzak biltzen hasiko gara. Horretarako unitatean zehar jorratuko diren gerren, hirigintzaren eta industrializazioaren gaiak aukeratu ditugu.

Gerrak ugariak dira, zoritxarrez, gaur egun munduan. Komunikabideetatik eta abar izango dituzte haien berri gure ikasleek. Lehenik eta behin, gaira hurbiltze aldera, ezagutzen dituzten gerren berri galdetuko diegu. Ondoren, hipotesiak egiteko eskatuko diegu. Gurean gerrarik izan ote den ala ez eta izan badira ea nortzuen artean izan ote diren hausnartzeko eskatuko diegu.

JARDUERA1: Zein gerra ezagutzen dituzu?

JARDUERA2: Izan ote da gerrarik gure herrian? Noren artean?

Hirigintza alorrean murgiltzeko eskatuko diegu, segidan. Lehenik, hirigintza zer den azaldu beharko diegu, akaso. Horretarako, lehenik, hitza aztertzeko, haren konposaketa, eta ondoren hipotesiak egiteko eskatuko diegu.

Behar bada, horrekin nahikoa izango da denen artean hirigintza zer den argitzeko. Bestela, hiztegiara edo Internetera jotzeko eska diezaiekegu.

JARDUERA3: Hirigintza kontuan izanik, markatu egokiak iruditzen zaizkizun adierazpenak.

Ondoren, ikasleek duten iritzia irudi batean jasotzen ahaleginduko gara. Horretarako bi galdera egingo dizkiegu. Alde batetik, herritarren lan jardunaren inguruan duten pertzepzioa jasotzeko, eta beste alde batetik, lan sektoreen presentzia fisikoaz zenbat jabetu diren ohartzeko. Horretarako, irudiaren dagokion zatia kolore gorri margotzeko eskatuko diegu asko bada, eta urdinez gutxi bada.

Jarraian, bakarkako lana amaitutakoan, bere irudia albokoarenarekin alderatzeko eska diezaiekegu. Nahi izanez gero, talde txikitara bildu eta



taldekide bakoitzaren irudiak alderatu ondoren, norberak iritzia ematean izan dituen irizpideak azaltzeko eska diezaiekegu.

Taldean lanean hasi aurretik, erantzuna ez dela bakarra azaldu beharko genieke; bakoitzaren irudia ez duela zertan izan behar lagunarenaren berdina, alegia.

JARDUERA4: Aderazi zure iritzia kolorez. Zenbatek egiten du lan?/ Zenbat daude?

Eta, azkenik, industrializazioaren gaia lantzean aipatuko ditugun oinarrizko hainbat ideia susmatzen hasten laguntzeko, herriko panoramika bat eskainiko diegu. Bertan, etxe artean, lantegiak aurkitzeko eskatuko diegu. Nahi badute, aurkitutako lantegiak biribildu ditzakete.

Gehiago sakondu nahi izanez gero, eta panoramika baliatuz, hainbat alde aipa diezaiekegu ea zer dioten: herria nolakoa zen, zein ezaugarri zituen, lantegiak non zeuden kokatuta, gaur egun zer dagoen, zer ez eta abar.

JARDUERA5: Ea zenbat lantegi topatzen dituzun argazki honetan!

Koadernoko 3. orrialdea.

3. GERRAK GUREAN

Koadernoan datozen orrialdeetan herriak jasandako gerretan murgilduko gara. Lehenik, ordea, interesgarria iruditu zaigu gerraren inguruan hausnartzea, banaka eta taldean. Gai korapilatsu horren inguruan dituzten ideiak, ikuspuntuak eta abar azalarazi eta denen artean aztertzeko.

Horretarako, lehenik eta behin, hausnartzeko hainbat galdera proposatu dizkizuegu.

Galdera horiek taldean landu daitezke edo banaka, egokien iruditzen zaizuen moduan. Galderen erantzunak idatziz eskatu diezazkiekegu, edo taldean lan egin badute, proposaturiko puntuan eztabaidatu ondoren, denen artean

ondorioztatu dutena jasotzeko eska diezaiekegu. Erantzun horiek, gero, talde handian jorra ditzakegu, edo nahi izanez gero, talde bakoitzak atera dituen ondorioak horma-irudi batean jar ditzakegu. Gehiago landu nahi izanez gero, gerren inguruan aurkitzen dituzten irudiz eta argazkiz apain dezakegu lana.

Hausnarketa hori egin ondoren, gerraren gaian murgiltzeko prest izango direla uste dugu. Ondorengo jardueretan, gerraren inguruko hainbat iritzi eskatuko dizkiegu, gerraren gaineko kontakizunen edo pasadizoren bat jasotzea etxean galdetuz edo herritarren bat elkarrizketatuz eta abar.

Amaitzeko, *Xenpelarrek* gerrari buruz zuen iritzia argi eta garbi agertzen dituzten bertsoak dituzue hemen. Koadernoan bakarra jarri dugun arren, nahi izanez gero, hirurak landu eta ikas ditzakete.

Ondoren, *Xenpelarrek* egin zuen gisan, haiek ere gerrari buruzko beren iritzia idazteko eskatuko diegu. Animatzen denak bertsoz egin dezake, *Xenpelarrek* egin zuen bezala.

JARDUERA1:

- *Zer da gerra?*
- *Nola sortzen dira?*
- *Nola egiten dira gerrak?*
- *Nola bukatzen dira gerrak?*
- *Zein ondorio ditu gerrak?*
- *Non ikasi duzu gerrari buruz dakizuna?*
- *Zein gerra ezagutzen dituzu?*

JARDUERA2: *Nortzuek galtzen dituzte gerrak, zure ustez?*

JARDUERA3: *Zein hitz ditu gerrak? Iluna, Heriotza, Beldurra, Beltza, Negarra...*

JARDUERA4: *Idatzi hemen gerrari buruz kontatu dizuten kontakizuna edo pasadizoa.*

Material osagarria: JARDUERA5: Xenpelarrek bertso batean adierazi zuen gerrari buruz zuen iritzia: ([Iya guriak egindu](#))

*“Ez naiz ni gerraren zale,
baizik pakearen alde;
zeñek nai duen galde,
berari tira dale,
bala bat sartu buruan,
aspertuko da orduan!*

Koadernoko 4. orrialdea

JARDUERA6: Arakatu egunkariak, aldizkariak, Internet eta munduan zehar dauden gerren gaineko berriak eraman gelara. Munduko mapa handi batean gerran dauden herrialdeak adierazi ditzakezue eta bakoitzaren ondoan astero dauden berrien laburpena ipin dezakezue.

4. GERRAK GUREAN: KARLISTADEN AURREKO EGOERA

XIX. mendea eta XX. mende hasiera gatazkatsuak izan ziren Europan eta baita Euskal Herrian ere.

Europan zabaldu zen konstituzio liberalaren aurkako mugimendua paperen eta agirien bidez agertu zen Euskal Herrian.

1822tik aurrera, liberalen aurkako iraultza handi bat prestatzeko koordinatzen hasita zeuden, eta, Espainiako erregearen aldeko partidek edo boluntarioek hainbat ekintza armatu egin zituzten.

Aliantza Santuak *San Luisen Ehun Mila Semeak* (Angulemako dukearen buruzagitzapeko frantziar tropak) bidali zituen Espainiara, eta horri esker, Fernando VII.a Espainiako errege absolutu bihurtu zen berriz. Halaxe bukatu zen Hirurteko Liberalaren (1820-1823) erregimen konstituzionala, eta beste aldi bat hasi zen: Zorigaiztoko Hamarkada (1823-1833).



5. GERRAK GUREAN: I. KARLISTADA (1833-1839)

Fernando VII.ak, hil aurretik, emakumeak tronuratzeko aukera ezarri zuen, zuzenean nahiz zeharka gizonezko oinordekorik ez zegoen kasuetarako. Fernando VII.aren anaia, Karlos Maria Isidro infantea, beraz, ondorengotzatik kanpo gelditu zen Fernando VII.ak alabak soilik zituen arren. Karlistek, Karlos Maria Isidroren aldekoek, ez zuten egoera onartu eta aurre egin zieten liberalerari, isabeldarrei. Horiek, Fernando VII.aren alaba defendatzen zuten, Isabel.

1833ko urriaren 3an, Lehen Karlistaldiari hasiera eman zion altxamendua gertatu zen Bilbon.

Gure herrian, liberalismoaren hasieran talde heterogeneoa zegoen: nekazari eta eskulangile dirudunak, administratzaileak, eskribauak eta merkatariak, batik bat. Horien ekonomi egoera sendoa zen eta auzokoek baino hezkuntza hobea jaso zuten: hori dela eta, udalean parte hartu eta herri-lurren salmentaz aprobetxatzeko aukera zuten. Lehen Karlistada bukatutakoan, horietako batzuk industria gizon bihurtu ziren.

1834aren hasieran, Udala oso ideologia desberdineko lagunez osaturik zegoen. Neurri horrekin giroa baretu nahi izan bazuten ere, ez omen zuten arrakasta handiegirik erdietsi. Liberalek herritar talde armatu bat zeukaten. Karlistak, berriz, gauez sartzen ziren beren erasoaldiak egiteko. Herriko liberal gorenak herritik alde egin zuten. Jarrera hori ez da harritzekoa, garaiko prentsak dioenez, karlistak Oiartzunen sartu ondoren liberalen indarrek alde egin baitzuten. Eta 1834ko azaroan, gauez, Hondarribian sartu eta alkatea eta haren semea bahitu zituzten karlistek.

1834ko udan Zumalakarregik argi eta garbi erakutsi zuen liberalerari lur zabalean aurre egiteko gai zela. Hori dela eta, karlisten eraginkortasunak gora egin zuen herrialde osoan.

6. LEHEN KARLISTADA HERRIAN

1835eko otsailean, “txapelgorri” edo boluntario liberalek gure herria hartu zuten. Hilabete hartako 24an, “txapelgorrien” komandantea zen Zuaznabarren aginduz, bi herritar fusilatu zituzten udaletxe aurrean: Jose Benito Ugarte 28 urtekoa eta Francisco Etxebeste 27koa.



Bi heriotzek eta haien ingurukoek eragin handia izan zuten herritarren artean, herritar gehienak karlisten aldekoak ziren-eta. Ordurako hainbat gaztek gerrillarako bidea hartua zeukaten, eta Artikutza eta Goizueta aldean ibiltzen ziren gehienbat. Gainera, Zumalakarregik informatzaileez ongi osatutako sare on bat zeukan antolatuta, eta liberalak sarea desegiten gogor saiatu arren ez zuten lortu.

Apaiz guztiek alde egin zuten herritik, batek izan ezik: Martin Huizik exekuzioak gertatu ondoren alde egin zuen.

1835eko ekainean hartu zuten karlistek herria. Beraz, Foru Aldundiko Gerra Sailaren mende geratu zen.

1837ko maiatzaren 14an eta 15ean liberalen eskutan erori zen herria, Lezo eta Astigarragarekin batera. Karlistek atzera egin zuten Gibelaldeak aginduta.

Gure herriak arielak eta gerra-eskubideak ordaindu behar izan zituen; etsaiari zeharka edo zuzenean laguntzeagatik liberalek zigor ekonomikoak jarri zizkieten. Ondorioz, hainbat eta hainbat auzotar ondasunik gabe utzi zituzten. 1839ko uztailaren 2an konfiskatutako ondasunak enkantean atera ziren, baina inork ez zuen eskaintzarik egin.

Matxingo lurmuturrean zegoen kaputxinoen komentua erre egin zuten karlistek, lehenago liberalek hartu baitzuten.

Karlisten gudarostean 132 herritar ibili ziren gutxi gorabehera: horietatik, 41 jabeak ziren eta gainerako 91 jabe ez zirenak. Esan bezala, jendarteko maila apalenetakoak izan ziren karlisten lerroetako gehienak.

Ustez ideologia liberalekoak ziren familiak kontuan hartuta, 20-25 bat ibiliko ziren liberalen gudarostean. Guztira, 150 edo 160 gizonek esku hartu zuten gatazka horretan, beraz, armak izateko adinean zeuden gizonen % 48. Herriak, hortaz, ez zuen oso sutsuki parte hartu Karlistada horretan.

7. LEHEN KARLISTADAREN AMAIERA

1837ko konstituzioa zentralizatzailea eta foruen aurkakoa zenez, gatazka areagotu egin zen. Horren adibide da karlistek goiburua aldatu izana: Jainkoa, Aberria eta Erregea goiburuari Foruak gehitu zioten.

Bergarako Hitzarmenak (1839/08/31) eman zion bukaera gatazka hari, eta Bergarako Besarkadaren bidez berretsi zuten hitzarmena. Esparterok foruak errespetatzea aholkatuko zuela agindu zuen. Baina, kontuak kontu, zenbait aldaketa gertatu ziren, 1841eko urriaren 29ko dekretuari jarraiki: Batzar Nagusiak desagertu egin ziren, foru-baimena indargabetu zuten, aduanak kostaldera aldatu zituzten eta erregimen fiskal eta ekonomiko komuna ezarri zuten euskal lurretan. Esparterok 1841eko Foruak Aldatzeko Legeak arautu zuen. Hura hil ostean, foru-sistemaren zati bat berreskuratu zuten Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak; Zorigaitzaren Foruak esaten zaie.

Jendeak ez zuen aduanak lekuz aldatzea nahi, hornidurak garestituko zirelakoan. Baina Lehen Karlistada galdu eta gero, mugak behin betiko aldatu ziren.

8. GERRAK GUREAN: II. KALISTADA (1872-1876)

Euskal Herriko tokirik gehienetan bezala, aurreko hamarkadetan herrian izandako iraunkortasun politikoa gainbeheran hasi zen 1868ko iraultzaren ondoren. Iraultzak hainbat erantzun sorrarazi zituen euskal jendartearen, eta ondorioz, euskal jendartearen apurtu egin zen. Estatu liberalaren aurkako herri-erresistentzia abian jarri zen. Gure herria grina politikoaren olatuan murgildu zen, eta Euskal Herri osoarekin batera, gerrarako bidea hartu zuen. Ia oharkabean herriko biztanleak etsaitu ziren, baita adiskide eta familia asko suntsitu ere. Gure herria zatituta gelditu ziren herri horietako bat izan zen; gerra gatazka zibila balitz bezala bizi zuten, eta herriko historian oso oroitzapen mingarriak utzi zituen. Gatazka politikoak bizitzako arlo guztiak menderatu zituen: harreman pertsonalak, familiakoak edota ekonomia mailakoak.

Herriko liberalen taldean herriko handiki gehienak zeuden, Bergarako Besarkadatik udaleko karguak bereganatu zituztenak buru zituztelarik; horrez gain, lur-jabe handiak, industrialari gehienak, lantegiko goi-kargudunak, merkatariak eta lanbidedunak. Gainera, haien tartean baziren hainbat langile militante. Karlismoaren inguruan, ordea, herri-klaseak pilatzen ziren; nekazari ia guztiak eta langileak eta jornalariak, maisu-maistrak, zenbait eskulangile, lantegietako erdiko kargudunak eta apaizik gehienak. Azken hauek herriarengan eragin handia zuten, berebiziko papera jokatu zuten kausa karlistaren alde.



1845etik 1866ra bitartean herrian izandako zabaltze ekonomikoari probetxurik gehiena atera zioten talde sozialak liberalismoaren aldekoak izan ziren. Industriara etorritako hainbat teknikari atzerritarrek ere liberalismoaren aldeko jarrera hartu zuten.

Industria kapitalista zabaldu eta estatu liberala sendotu izanaren ondorioak eta kostua jasan zituzten klaseak, ordea, karlisten aldekoak ziren. Kostu horiek hiru motakoak izan ziren: kostu ekonomikoa, kostu soziala eta kostu kulturala. Gutxi balitz, estatu liberalak kultur uniformetasuna eta gutxiespena ez ezik, etsaitasuna ere erakutsi zuen Euskal Herriko ezaugarri etnikoekiko.

Aipatutako kostuak zirela eta, liberalen aurkako sentimendua erraz piztu zen herri-klaseen artean eta horrek ideologia kanpaina bizia egiteko aukera eman zuen. Matxinadarako deia zabaldu zuten, apaizek, batik bat.

9. BIGARREN KARLISTADA HERRIAN

1868an, ordura arte pilatutako tentsioak leher egin zuen. Uztailaren 4an karlisten aldeko manifestazio garrantzitsua antolatu zen herrian.

1869tik 1870era, boluntarioek zaintza-lanak egin zituzten eta karlistei zuzendutako hainbat arma atzeman zituzten inguruko mendietan ezkutaturik. Bide batez, karlismoaren aldeko auzoak kontrolatu eta zelatatzeaz arduratu ziren liberalak.

1870eko abuztuan gerra deklaratu zenean, herritar askok herritik ihes egin zuten, partida karlistekin bat egiteko; bitartean, boluntario liberalak etsituak zeuden eta herritarren irainak jasotzen zituzten.

1871ko Gorte-hauteskundeak herrian karlistek irabazi zituzten botoen % 69,3 lortuz. Hurrengo urteko hauteskundeetan garaipena lortu zuten berriro, liberalek herria militarki hartuta izan arren.

1872ko apirilean karlisten altxamendua gertatu zen. Hurrengo urtean, 1873ko uztailean, indar karlistek Oiartzun eraso eta garaipena erdietsi zuten, bertako mikelate gutxi batzuk aurre egin bazieten ere. Oiartzungo eta beste toki batzuetako liberalek gure herrian babes bilatu zuten, karlistengandik ihesi. Orduetik, benetako setio egoeran bizi izan ziren herritarrek, karlistek kontrolatzen zuten lurra herriko atariraino zabaldu baitzen bizkor. Hala ere,



barruko bizilagunek karlistekin harremanetan jarraitu zuten argiak eta abar erabiliz; eta gainera, arropak, jakiak eta beste hainbat gauza ere helarazten zizkieten.

Errepublika aldarrikatu zenean, liberalak zatitu egin ziren eta asko ahuldu ziren, nahiz eta horrek eragin handia ez izan herriko liberalen artean.

1874an, bi alderdien ahalegin handienak Bilbo inguruan antolatzen ari zirelarik, setioa areago estutu zuten gure herrian, karlistak gauaz baliatzen ziren Arramendiko sagastitik eta Madalenako baratzetik goarnizioko soldaduen aurka tiro egiteko; beraz, buruzagi militarrek aipaturiko sagastia botatzea erabaki zuen.

Herritarren aurkako neurriak areagotu ziren. Karlisten esku zegoen eremura hurbiltzea debekaturik zegoen eta tropek hainbat aldiz tiro egin zuten eremu hartarantz abiatzen zirenen aurka; ozta-ozta lortu zuten Donostiako errepidea zabalik mantentzea, Alabergan boluntario-talde bat jarrita. Darieta eta Arramendi baserriak gotortu zituzten; dena den obrak poliki-poliki egin ziren, lanera behartutako peoiek eta harginek lanari muzin egiten ziotelako. Gainera, herritarrak behartu zituzten landara agertzen ziren ateak, leihoak eta harresiak ixtera. Zibil batzuk balaz hil ziren, horien artean Longinos Goenaga 12 urteko haurra eta Patricia Zalacain 38 urtekoa.

Herri barruan, gerrak aurrera egin ahala, boluntario karlistak zituzten familien eta lagunuen aurkako zigorrak zorrotz zituzten. 1875ean karlisten ondasunak bahitu zituzten eta matxinatuen alde borrokan aritzen ziren 25 urtetik beherako semeak zituzten 33 familia herritik kanporatuak izan ziren.

1874ko azaroaren 11n eta 12an Gobernuako armadak eraso gogorra egin zuen Oiartzunen eta Irunen aurka, karlistak bailaratik ateratzeko eta erortzear zegoen mugako hiriaren setioa altxatzeko. Liberalen zutabeetako bat gure herritik abiatu zen, atzean baserri pila bat sutan utzita, gure eta Lezo ingurukoak gehienak, eta bertakoak mehatxatu ez ezik, lapurreta ugari ere egin zituzten. Antza denez, borroka horietan biktima ugari izan ziren.

Hala ere, armadak kuartelak zituzten puntuetara itzuli bezain laster, lurraldea berriro erortzen zen karlisten esku. Hura zela eta, egun batzuk geroago setio-egoera indarrean jarri zen berriz. Azaroaren 21, 22 eta 23an, boluntarioek karlisten beste eraso bati aurre egin behar izan zioten, oraingoan Arramendi gotorlekuan. Eraso horretan hainbat postu garrantzitsu berreskuratu zituzten.



Pixkanaka ekintza militarrek herritik urrundu baziren ere, setioak bere hartan iraun zuen; beraz, beste defentsa neurri batzuk hartu behar izan zituzten, esaterako kanpoko harresiak bota eta hurbil zeuden zuhaitzak moztu. Gainera bi lerroen arteko baserriak husteko agindua eman zuten ere. Gauzak ez ziren asko aldatu ia gerra bukatu zen arte, 1876ko otsailean.

Gatazkan parte hartu zutenei buruz, 193 gizon Boluntario Liberalekin ibili ziren. Beste 200 herritik atera ziren, karlistekin bat egiteko. Horietatik 31 borrokan hil ziren.

10. BIGARREN KARLISTADAREN AMAIERA

Gerraren ondorioz baserri asko suntsituak izan ziren; eta udaleko diru-kutxa sosik gabe zegoen, gerrak iraun zuen artean aparteko zerga ugari kobratu baziren ere, eta, karlistei ondasun asko kendu bazizkieten ere.

Industriak ere pairatu zituen gerraren eraginak. 1769tik lanean ari zen Fanderiako konplexu industrialak eraitsi zuten karlistek 1873an, armada liberalari armak zerbitzatzen zizkielako.

Guda hasieran, karlistak armada errepublikanoari aurre egiteko gai izan ez baziren ere, 1873tik aurrera, armada berrantolatuta, ia Hego Euskal Herri osoa kontrolatu zuten; hala ere, hiri handiak kontrolatzeko arazoak zituzten. Gainera, Alfontso XII.ak monarkia berrezarri zuen, eta karlista asko konforme gelditu ziren horrekin. Horrek guztiak porrot eginarazi zien berriro.

Karlisten porrotaren ostean, 1876ko uztailaren 21eko legea argitaratu zuten: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan foru-sistema indargabetu egin zuten. Lege hark Batzar Nagusiak, Foru Aldundiak, euskal udalen eskumen tradizionalak eta salbuespen fiskala eta militarra desagerraraztea zuen helburu. Nolanahi ere, lurralde horiek Espainiako gainerako probintziek ez bezalako tratamendua jasotzen jarraitu zuten, 1878ko otsailean ezarritako kontzertu ekonomikoaren bidez.

Gerrak iraun zuen bost urteetan, haurrek zailtasunak izan zituzten eskolara joateko eta, ondorioz, askok ez zuten irakurtzen eta idazten ikasterik izan.

11. GERRA GUREAN: GOTORLEKUAK

Bizaraingo eta Txoritokietako gainak garrantzi estrategiko handiko lekuak ziren gure herriko eta Pasaiako portuaren defentsarako. XIX. mendearen hasierako gerretan kokapen horiek portua Oiartzunekin eta “Camino Real” errepidearekin lotzen zituen komunikazioak menderatzen zituztela-eta gotorlekuak eraiki ziren haietan: San Marko eta Txoritokieta.

Bigarren karlistadan, bi toki horiek izan ziren gotorleku nagusiak, Darieta eta Arramendirekin batera, herriko defentsarako karlisten setioaren aurrean eta gune liberalekiko komunikazioei eusteko. Udalak gogotik lagundu zuen lau leku horiek gotortzen, eta gerra amaitu berritan armadari utzi zion San Marko gotorlekua, militarren instalazio iraunkor bihurtu zelarik.

12. GERRA GUREAN: KARLISTADEN ONDORENGO URTEAK GURE HERRIAN

Laster hoztu zen, ordea, herriko liberalek Espainiako armadari erakutsitako elkartasuna: eta, era berean, foruen aldeko sentikortasuna berotu.

Udalak hainbat eskaera luzatu zituen soldaduak herritik atera zitezten, herriko jendearekin bizitzeko arazo asko sortzen zituztelako. Karlisten matxinadak erregimenari ekarritako arriskua behin desagertuta, euskal liberalek beren jarrera foruzaleak hartu zituzten. Gobernua, ordea, karlismoaren porrotaz aprobetxatu zen artean zutik zeuden foru bakanak baliogabetzeko, euskal liberal askok protesta egin bazuten ere.

Indargabetutako eskubideetako bat soldadutzara ez joateko eskubidea izan zen. 1877ko urtarrilean, Udalbatza liberal osoak dimititu zuen, herriko mutilen izen ematea saihesteko, foruen aurkako neurria zela uste zutelako.

Ordena eta jabetza balioak defendatu nahi zituzten. Batzuek uste zuten hori errazagoa izango zela estatu liberalaren babesean. Karlismoan militanteziren jabe eta industrialari bakanek, ordea, karlismoak eta erlijioak hobeto babestuko zituela pentsatu zuten, nahiz eta mugimendu karlistan osagai herritarra nahikoa indartsua izan. Gerra ondoren herrian izandako eboluzioa ikusita arrazoia zuten, antza.

Horrela, 1880az geroztik, herriko bizitza politikoaren errelebua etorri zen.

Karlistak arma bidez garaituak izan arren, herrian borroka politikoa irabazi eta udalaren kontrola hartu zuten.

JARDUERA: Ondoko orrialdean Karlistaden nondik-norakoan laburpena aurkituko duzue. Urte haietan nahasmena handia izan zen eta ez da erraza konplexutasun hura eskema batean laburbiltzea. Hala ere, Karlistaden zergatien muina ulertu eta guretzat sakonean izan zituen ondorioez jabetzeko garrantzitsua iruditu zaigu bi kontzeptu ezagutzea: Foruak eta Aduanak. Guk bien definizio bat eskainiko dizuegu hemen. Proposamena, ordea, ikasleek berek aurkitzea litzateke eta denen artean kontzeptuaren esanahia argitu ondoren hura idaztea. Nahiago baduzue guk eskainitakoaren diktaketa egin dezakezue.

FORUAK: herri edo herrialde bateko usadio edo ohiturak idatzita batzen dituen arau-multzoa. Herrialde horretako zuzenbide eta lege-bilduma osatzen du, hein batean.

ADUANAK: administrazioaren adarra, mugetan merkantzien sartu-irtena fiskalizatzeaz eta horiengatik ordaindu beharreko eskubideak biltzeaz arduratzen dena. Aduanak 1833an Ebron zeuden. Karlistadak galdu ondoren, Bidasora ekarri zituzten.

Koadernoko 5. orrialdea.

13. GERREN ARTEKO GARAIA: ERREPUBLIKA

Azken Karlistada amaitu zenetik, 1876an, Gerra Zibila hasi zen arte, 1936an, igaro ziren urteak politikoki eta sozialki gorabeheratsuak izan ziren.

Gerra Zibila hasi aurretik bi errepublika eta haien artean beste bi diktadura eta I. Mundu Gerra ezagutu zituen herriak.

1923ko apirilaren 29an hautestontziak desagerturik zeuden. Bozka diktadura zorrotz batek debekatu zuen. Diktadura horrek 1930 arte iraun zuen.

1931n gizonek botoa emateko eskubidea berreskuratu zuten. Emakumeek, ordea, beste bi urte itxaron behar izan zuten eskubidea berreskuratu zuten arte. Hauteskunde horiek errepublikanoek irabazi zituzten eta Espainiako monarkiak atzerrira alde egin behar izan zuen. Monarkia erregimena erorita Bigarren Errepublika garaia hasi zen.



Apirilaren 14an, behin-behineko gobernu errepublikano eratu zen eta Gorte Konstituzionaletarako hauteskundeak deitu zituen ekainaren 28rako: konstituzio berria egin nahi zuten Espainian.

Hauteskundeak errepublikanoen eta sozialisten artean eratutako koalizioak irabazi zituen. Horiek, beraz, kutsu ezkertiarra zuen konstituzio berria idatzi zuten. Konstituzio hark ondorengo aldeak jaso zituen:

Biztanleen askatasun eta eskubideen aldarrikapena; herriaren subiranotasuna; bozka eskubidea emakumeentzat; autonomia eskubidea izaera berezia zuten eskualdeetarako; eta gurtza-askatasuna eta Estatuaren eta Elizaren arteko banaketa.

14. ERREPUBLIKA GURE HERRIAN

Gure herrian hauteskunde haietan hiru talde lehiatu ziren: nazionalistak, errepublikano-sozialisten koalizioa eta tradizionalisten eskuineko indarra. Errepublikanoak eta nazionalistak pare geratu ziren, 8na zinegotzirekin.

Hilaren 14an berriak iristen hasi ziren, arratsaldeko 5:00etan aldarrikatu zen Errepublika gure herrian.

Herritarren artean handia izan zen horrek sortu zuen poza. Udaletxean bandera errepublikanoa, sozialista eta ikurriña zabaldu zituzten.

Ondoren, “Los incansables” musika taldea ibili zen kalez kale. Iluntzean, Udal Musika Banda atera eta “La Marsellesa” doinua joz ibili zen jende asko atzetik zuela kantari.

Manifestazio jendetsua egin omen zuten eta gauean dantza handia antolatu zuten Zumardian. Zumardiko kioskoan bandera errepublikanoa zegoen eskegita.

Jai giroan eta istilurik gabe egin zen, beraz, erregimen aldaketa gure herrian. Biharamuna, jaiegun izendatu zuten.

Nazionalisten eta errepublikanoen arteko oreka egoera horrek Errepublika garai guztian iraun zuen. II. Errepublikan, beraz, bi indar nagusitu ziren herrian, nazionalismoa eta sozialismoa. Bi ideologia horiek, EAJ eta PSOE



alderdien eta beren sindikatuen bidez, STV eta UGT ordezkaturik zeuden. Garrantzi handia hartu zuten herrian 1931-1936 urteen bitartean. Horien ondoan, errepublikanismoak berebiziko papera jokatu zuen herriko bizitza politikoan.

Eskuinak, tradizionalismoak ordezkaturik, garrantzi erlatiboaz eutsi zion II. Errepublika garaia, Zirkulu Tradizionalistaren bidez. Errepublika garaia guztian, eskuinak herriko botoen %16 inguru izan zituen. Horrek nahikoa indar eman zion eta gora egin zuen Udalbatzaren parte izatera iritsi zenean.

Komunistek eta Anarkistek, gutxi izanagatik ere, bere lekua izan zuten herrian II. Errepublikan, bereziki beren sindikatuen bidez.

1933an egin ziren hauteskundeak, ordea, monarkiaren aldekoen eta errepublikaren aurka zeuden eskuindarren koalizio indartsuak irabazi zituen. 1932tik aurrera egindako lorpenak bertan behera geratu ziren.

Horrek, politikan, jendartean eta gutxiengo nazionaletan gatazkak larriagotu eta erradikalizatzea ekarri zuen. Oso garaia nahasiak izan ziren, greba ugariekin.

Hurrengo hauteskundeak, 1936ko otsailekoak, ezkerreko alderdiek osatu zuten Frente Popular koalizioak irabazi zituen. Gobernu ezkertiar berri horren helburuak hauexek izan ziren: errepresioaren biktimentzako amnistia, nekazari pobreen egoera hobetzea, Kataluniako Autonomia Estatutua berrezartzea eta Falangea legez kanpo uztea.

Asmo horien guztien aurrean, armadako kontserbadoreek eta monarkikoek jazarraldi militarren prestaketak azkartu zituzten.

Errepublikanoek gutxiengo eskuindarraren kontra errepresioa erabili zuten.

Errepresio fisikoak izan zituen ondorio larrienak. Informazio horren iturri nagusia, ondasunen eta pertsonen gainean egindako errepresio errepublikanoaren ondorio guztiak biltzeko frankistek gerraondoren eskatutako *Causa General* da. Errepresio frankista aztertzeko dena oztopo eta traba diren arren, eskuinekoek jasan zutenaren berri jakiteko azterketa zehatza eta ofiziala dago, oso sakona.

Errepresio errepublikanoak herrian hildakoak 14 izan ziren guztira. Ia guztiak, karlistak ziren. Hala ere, gure herrian, errepublika garaiko bortxakeria gerrako lehen egunetan gertatu zen, egoera larrienen zegoenean.



Atxilotutakoak, hirurogeita hamalau lagun dira. Asko Bilbo erori zen arte egon ziren preso, hara eraman baitzituzten beraiekin herriko agintari errepublikanoek. Herrira itzuli zirenean omenaldiak egin zizkieten, baina gerrak jarraitzen zuenez, gazteak frontera eraman zituzten, atsedean hartzeko denborarik ere eman gabe.

Uztailaren 18an Franco jeneralak zuzendutako altxamendu nazionala hasi zen penintsulan. Espainiar militarrek estatu kolpea egin zuten.

Errepublikak ezarri zituen legeak bertan behera geratu ziren: hezkuntzari zegozkionak, jendeari zegozkionak eta abar. Gerra zabaldu zen estatuan eta baita gure herrian ere. Errepublikanoek eta haien aldekoek lortutakoari eutsi nahi zioten; militarrek, ordea, errepublika aurreko egoerara itzuli nahi zuten. Gipuzkoan, uztaileko azken egunetan Loiolako kuarteleko matxinatuek Donostia hartzen saiatu ziren. Ez zuten haien helburua lortu; izan ere, herriko jende xeheak aurre egin baitzien.

Baina ordurako Nafarroatik etorritako tropa irregularrek eta karlistek hasia zuten Gipuzkoaren aurkako eraso.

Herriaren borondatearen aurka altxa zirenek, estatu kolpea antolatu zutenek, irabazi zuten Gerra Zibila. Ondorioz, Francok agindu zuen 40 urtez Espainian eta baita Hego Euskal Herrian ere. Urte latzak izan ziren herritar gehienentzat.

15. ALTXAMENDUA GURE HERRIAN

1936ko hauteskunde haiek EAJk irabazi zituen herrian.

Francok gerra dekretua argitaratu eta laugarren egunean, 1936ko uztailaren 23an, elkartasun manifestazio herrikoia egin zen. Lehenago, herriko buruzagi karlistek telegrama bat igorri zioten altxamenduari atxikimendu sutsua adieraziz. Beraz, gure herrian karlistek ia ez zuten erresistentziarik agertu.

Ekintza horiekin garbi dago herriko buruzagi frankistak ahalegindu zirela Francori erakusten harekin zeudela, inolako susmorik izan ez zezan.

Gipuzkoa altxatuen esku erori eta berehala herrian “Falange Española de las JONS” eta “Acción Popular” sortu ziren. Probintziako gainerako herrietan Falange indarberrian eskuindar zehaztugabekoak, errepublikazale ohi



eskuindarrak eta zedista asko sartu ziren. Gure herrian, ordea, ezin gerta zitekeen horrela, ez baitzegoen Falange talderik aurretik.

Nortzuek osatu zuten, orduan, gure herriko Falange taldea? Lehendik zaleak izan zitezkeenez eta egoera zehatzetan beti izaten diren oportunistez gain, aipagarria da EAJko eta Batzokiko afiliatuen presentzia kide berrien artean.

Herritar horiek ebakuatu edo egoera baretu bitartean haien etxeetan itxi baino nahiago izan zuten, beren borondatez edo behartuta, irabazleen aldera egitea.

Eta zergatik aukeratu zuten Falangea? Karlistek afiliatuetan gora egin zuten. Karlistek, ordea, Falangeak baino itxiagoak ziruditen. Gainera, azken horiek, jendearen beharrean zeuden Karlistei aurre egiteko. Falangea aukeratu zuten, hortaz.

Nafarroatik etorri zen Beorlegui komandante frankista Aritxulegitik barrena. 1936ko uztailaren 27an erori zen Oiartzun frankisten esku. Egun horretan bertan bi egunez inguratu zuten herria: Agustinetako auzo guztia hartuta baitzeukaten Santa Klara zubiarraino bertaraino. Baina frankistak ez ziren herrira sartzera ausartu. Dirudienez, tren blindatu batek atzera eginarazi zien zubian, eta hilaren 28an laguntzera etorri behar zuten Loiolako kuartelekoak errenditu zirenean, jendea kalera irten zen Agustinetan eraso. Orduantxe gertatu ziren garai hartako gertakizunik ilunenak. Guardia Zibila behartu egin zuten irtetera, eta, bertako komandantea hil egin zuten ukatu egin zelako. Hurrengo egunean, 29an, erreketek erretiratu egin ziren Agustinetan zenbait zauritu utzita. Zauritu horiek errematatu egin zituzten milizianoek egoera nahasian.

Handik aurrera frentea Irunen kokatu zen, abuztuan erori zen arte. Eguneroko bizimodua asko aldatu zen, ez baitzen lanik egiten. Elizako bizimoduak aurrera egin zuen, nahiz eta mezak Madalena ermitan ematen ziren, parrokia militarki hartuta zegoelako, han baitzeuden bonbak eta armak, udaletxeko zenbait egoitzatan bezala; artxiboan, adibidez. Zaharren Babes-etxean Gurutze Gorriaren ospitalea jarri zuten eta aurkitu zituzten herriko mediku guztiak hara joatera behartu zituzten.

Gerra ekintzei dagokienez, bonba gutxi batzuk soilik erori ziren herrian, San Marko gotorlekura zihoazenak, segur aski, han kokatu baitzen miliziano talde bat erreketei bonbak jaurtitzen zizkiena.



Egoneko egoera horretan, herria antolatzen hasi zen eta matxinoak probintzian sartzen ari ziren bi fronteetara jende armatua bidaltzen hasi ziren. Bietan nagusiena, Irun-San Martzialeko frontera, ezkerreko milizianoak joan ziren borroka gogorretan laguntzera, eta zenbaitek bizia galdu zuen.

Gazte nazionalistak Loiolako Santutegiko milizianoen deialdira joan ziren. Han, Candido Sasetaren aginduetara Euzko Gudarostea hasi zen antolatzen, euskal armada nazionalista.

Irailaren 10, 11 eta 12an Molaren tropek San Marko eta Txoritokieta gotorlekuak hartu zituzten, eta 13an, errepublikazaleek eta nazionalistek herria hustu ondoren eskuineko zenbait Oartzunera joan zen Beorleguirekin hitz egitera eta bere esanetara jartzera. Handik ordu gutxira sartu ziren gure herrian, goiz hartan bertan Montoya komandantearen buruzagitzapean gizontalde batek hartu zuen herria, inolako erresistentziarik gabe.

16. GERRAREN SUSTRAI SAKONAK

Gerrak ondorioak izan zituen herritar guztiengan eta baita herriko bizitzan ere. Herritar batzuek gerra irabazi zuten, eta beste batzuek, berriz, gerra galdu zuten. Irabazleek eta galtzaileek hurrengo hamarkadetan pairatu zituzten gerraren ondorioak. Alde askotatik azter genezakeen urte haietan gertatutakoa. Hala ere, kontuan izanik gure ikasleek duten adina eta gaiak izan dezakeen konplexutasuna, gerrak izan zituen hainbat ondoriotan sakontzea erabaki dugu. Bestalde, kontuan izan zein ezezaguna den historiaren kapitulu hau, baita gure herrian ere.

Helburua litzateke ikasleak jabetzea gerraren ankerkeriaz eta laztasunaz.

Horretarako, esan bezala, gerraren hainbat ondorioren inguruan lan egitea proposatuko dizuegu segidan.

Koadernoan aurkituko duzuen irudien informazioa duzue jarraian.

17. BONBARDAKETAK

Oso zabaldua ez den arren, gure herria bonbardatua izan zen Euskal Herriko hainbat herri izan ziren gisan. Airez bonbardatu zuten eta baita itsasoz ere, Cervera itsasontziak, hain zuzen ere, 1936ko irailean. Bonbardaketa trinkoa izan zen eta herritar gehienak herritik ateratzera behartu zituen hilabete hartan bi aldiz.

18. GERRATIK IHESI: EBAKUAZIOAK

Herriaren ebakuazio horiek izugarriak izan ziren, beldurgarriak. Benetako exodoa bilakatu zen, izua zen nagusi bazter guztietan. Izan ere, erreketen eta militarren mendeku-egarria ez zuten ezkertiarrek soilik pairatu, politikoki busti gabeko jendeak ere jasan zuen, eta Francoren aldekoen hurbil zeuden batzueganaino ere heldu zen.

Lehen ebakuazioaren ondoren, 1937ko ekainaren 23an eta 25ean, etxera itzuli ziren. Gehienak Trintxerperaino heldu ziren ihesean, batzuk Zarautzaino iritsi ziren.

Bigarren ebakuazioaren itzulera luzeagoa izan zen, ordea. Une hartan herrian 7.000 lagun bizi ziren; horietatik 4.000 bat geratu ziren bertan.

Alde egin zuen inork ez zuen pentsatu hainbeste iraungo zuenik ebakuazioak. Gipuzkoa frankisten esku erori zenean, jendeak Bizkaia aldera ihes egin zuen. Izan ere, Bizkaia ez baitzen askoz ere geroago arte erori, 1937ko uztaila, frankisten esku.

Zenbaitentzat urte luzeetako deserriratzea izan zen. Askoren ibilbidea hauxe izan zen: herritik Zarautzera, handik Bilbora eta gero Santanderrera.

Euskadiko Gizarte Laguntzarako departamenduak Santanderetik Bilbora eraman zituen haur asko, beste herrietako haurrekin. Haur horiek Habana itsasontzian sartu eta Southampton-era (Ingalaterra) eraman zituzten. Itsasontzi horrek 300 lagunentzako lekua zuen arren, 4.000 lagun itsasoratu ziren bertan. Ingalaterrako lurretara heldu zirenean kanpin dendetan ipini zituzten. Gero, Ingalaterra osoan barreiatu zituzten taldeetan banatuta.



Gerra amaitu zenean, gurasoek gerraren izugarrikerietatik babesteko erbesteratu zituzten haur asko herriratu ziren. 1939an, ordea, agintari berriek salatu zuten herriko 65 haur ez zirela itzuli. Horietatik 45 Frantzian barreiatuak zeuden, 5 Britainia Handian, 6 Belgikan eta 6 Sobietar Batasunean. Azken horiek, hain zuzen, ez ziren sekula herrira itzuli.

Ebakuatutako herriko biztanleen datu gutxi ezagutzen dira.

Herritik ebakuatutako udalbatzak lanean jarraitu zuen Bilbon. Bulegoak zabaldu zituen haiekin ihes egindako herrikideei laguntzeko.

Bizkaira ebakuatutako herritarren bizimoduak egoera berrira egokitu behar izan zuen eta gutxi izan ziren lana topatu zutenak. Horietako asko, osatzen ari zen euskal armadan sartu ziren eta beste batzuk euskal erakunde berrietan hasi ziren lanean.

19. BORROKAN HILDAKOAK

Jende ekarpenari dagokion alderdi mingarriena, gerran borrokan aritu ziren alde bateko zein besteko pertsonak dira.

Armada nazionalak, gutxi gorabehera, 522 lagun mobilizatu zituen Francoren alde, horietatik 72 boluntarioak.

Errepublikaren alde, aldiz, 1.009 izan ziren mobilizatutakoak. Kontuan izan behar da garai hartan herriak ia 9.000 biztanle zituela, soilik.

Francoren alde aritu zirenen datuak askoz ziurragoak dira, omenaldi asko egin baitzizkieten: “a los caidos por Dios y por España”. Horiek, 45 herritar izan daitezke: horietako 9 gerrara boluntario joandakoak dira eta, gainerakoak, deialdiko soldaduak; 20 eta 25 urte artekoak ziren.

Heriotzagatiko baja horiez gain, herriko gutxienez beste 45 lagun zaurituak izan ziren: “vertieron su sangre por la causa nacional”, garaiko hizkeran. Horietako asko elbarri mailara pasa ziren eta gerraondoan diru-laguntzak jaso zituzten sari gisa, baita funtzionario postuak ere. Hortaz, elbarriak edota umezurtzak saritu zituzten, baina, jakina, irabazleen aldekoak soilik.

Ez da zehatz ezagutzen Euzkadiko Armadako batailoietan zenbat herritar sartu ziren. Udalean gorderik dagoen dokumentazioaren arabera horietako

315en datuak lortu dira. Pentsatzekoa da, ordea, guztira herritar askoz gehiago zirela Euzkadiko Armadan aritu zirenak. Ez da ezagutzen zehatz horietatik ia erdiak zein alderditakoak ziren, nahikoa ondo erakusten du, baina, gerra aurreko indar politikoen eta sindikalen arteko indar banaketa. Borrokan hildakoei buruz, 54 herritarren berri ezagutzen da; horietatik bi, ordea, ez da ziurra borrokan hil ziren edo exekutatu egin zituzten. Herritar gehienak Itxarkundiaga batailoian (EAJrena) eta Larrañaga batailoian (komunisten batailoian) aritu ziren.

Itxarkundia gudari taldeko bost konpainietako batek “Orereta” zuen izena. Konpainia horretako kapitain izan ziren Luis Sansinenea eta, gero, Alejandro Lizaso, udaleko 1. txistularia. Txistulari hori benetan izan zen ospetsua, “Eusko Gudariak” abestiaren musika egin baitzuen.

Haien ondoren, Eugenio Errazkin izan zen kapitaina.

20. FUSILAMENDUAK

Herritarren erdiek ihes egin zuten, beraz. Ondorioz, gerta zitezkeen baino fusilatu gutxiago izan ziren. Era berean, hainbeste jendek alde egin izanak izan zuen beste ondorio bat: beste egoera batean oharkabean pasako ziren herritar asko fusilatzea, hain zuzen.

Etxe askotan izan ziren hilketak. Errepublikarrek sei herritar fusilatu zituzten: bi herrian bertan eta lau Bilboko kartzelan. Frankistek fusilatutakoak, berriz, 41 izan ziren: Serapio Mendarte zinegotzi abertzalea, haien artean.

Bordazar baserrian, esaterako, baserriko bi seme fusilatu zituzten. Oso ongi jasotzen dira gertakari horiek haien aitak, Zapirain bertsolariak, idatzi zituen *Len amar lagun giñan etxian* bertsoetan.

Material osagarria: [“Len amar giñan etxian” bertsoa](#)

21. PRESOK

1936ko eroldaren arabera 9.373 biztanle zituen herriak. Nahiko datu ziurra da horietatik 342 noizbait preso egon zirela.

Gerra amaitu zenean, zigor garrantzitsuak bihurtu ziren kartzela eta bortxazko-lanetako zigorrak, lagun askok urtetan bete behar izan baitzituzten.

Preso hartzen zituztenean, errepublikanoak kontzentrazio eremu batean sartzen zituzten eta han komizio batek aztertzen zituen bakoitzari buruz herriko agintariak bidalitako txostenak. Txosten horiek alkatetzak, Guardia Zibilak eta, sarritan, elizak egiten zituzten.

Azterketa horren ondoren, presoak hiru aukera zituen: aske gera zitekeen, Langile Batailoi batean sar zezaketen edo kartzelan. Han prozesu sumarisimo bat jasango zuen, bere sailkapenaren arabera.

1939aren bukaeran 69 ziren estatuko kartzeletan preso zituzten herritarrak. Kopuru hori, baina, asko handitu zen; 275 lagun behintzat igaro ziren Francoren kartzeletatik.

Horietako asko askatu egin zituzten gerra amaitu zenean edo Langile Batailoietara pasa zituzten. 1945eko urtarrilean 70 ziren baldintzapeko askatasunean zeuden presoak, baina 250 ere izan zitezkeela uste zuten agintariak.

22. LANGILE BATAILOIAK: ESKLABOAK

Langile Batailoiak helburu bikoitza zuten: alde batetik, agerikoa zen ezin zela hainbeste preso mantendu eta derrigorrezkoa zen zigorren mailaketa egitea; eta beste aldetik, preso batzuk oso eskulan merke bezala erabili nahi ziren, azpiegitura eta berreraikuntza lanetan.

Batailoietan soldadu langileak (horrela deitzen zitzaaien) ordainsari txiki bat jasotzen zuen eta haren familiari bidaltzen zitzaion. Egoera oso gogorra zen arren, kartzelan baino jardunbide eta mugitzeko askatasun handiagoa zuten.

Herrian bi batailoi ezarri ziren 1939an. Bat Florentino Loidiri konfiskatutako etxean, eta bestea, armadak hustutako Biteri eskoletan.

1942an, batailoi bat zegoen Jute fabrian eta tifus kasuak gertatu ziren langileen artean. Uholdeen aurkako defentsan aritu ziren lanean. Besteak beste, Oiartzun ibaiaren arroa desbideratu zuten.

Kartzela zigorrak, larriagoak berez, askoz jende gehiagok jasan behar izan zituen. Zigor hori bete ondoren, igaro zitekeen ere batailoi batera.

23. GERRA ONDORENGO DEBEKUAK

Garai hartako ezaugarri nagusia Giza Eskubideen urraketa izan zen, garbiketa politikoarekin eta euskararen galaraztearekin batera.

Gerrak debeku ugari ekarri zituen, horien artean euskarari zegozkionak.

Gainerako hizkuntzak ere baztertu nahi izan zituzten. 1940ko maiatzaren 6an Gobernuak agindu bat argitaratu zuen. Agindu haren arabera, enpresei debekatu egin zitzairen atzerriko hitzak erabiltzea beren produktuak izendatzeko; hau da, espainieraz ez ziren hitzak. Gure herrian, herrian bertan egiten zuten Grebel produktuari aplikatu zioten.

Hitz atzeritarrak debekatu zituzten ere errotuluetan, iragarkietan eta abar, haien esanetan, espainiar kontzientzia zikintzen baitzuten. Ondorioz, Panier Fleuri jantze famatuak Fombellida izena hartu behar izan zuen 1945 arte.

Urte bereko uztaileen 5ean, ijitoak kanporatu zituzten herritik.

Ildo horretan, herriko hainbat plazari eta kaleri izenak aldatu zizkieten: esaterako, Herriko plazari “Plaza del General Mola” izena jarri zioten.

Nafarroako Hiribideari, berriz, “Avenida de la Gloriosa Navarra”. Beste kale askori izena ordezkatu zieten militar Frankisten izenekin.

1949an, berriz, dantza lotuaren ustezko moraltasunik ezaren gaineko idatzia aurkeztu zuten udalean.

Inauteriak debekatuak izan ziren urte askoan. Erregimen berriaren moralaren kontzeptu estu eta ia surrealista debekatu egiten zuen “ohitura onen” kontra zihoan guztia. Esate baterako, Gabon Zahar gauean egin nahi izan zuten dantza.

Euskara eta euskal nazioaren edozein manifestazio erabat baztertuak geratu ziren. 1939tik aurrera areagotu egin ziren debekuak, gainera. Izan ere, salaketa eta isun ugari izan ziren euskal izenak erabiltzeagatik eta ez zen libratu ezta mojen eskola ere, 1941ean salatu baitzituzten eskola barruan izen horiek erabiltzeagatik.

24. GERRAKO ZIGOR EKONOMIKOAK

Neurri ekonomiko garrantzitsuena “suscripción nacional” izenekoa izan zen, gerrarako benetako zerga, borondatez emandako diruekin hornitzen zena. Gerrako lehen egunetan diru asko bildu zen bide horretatik eta, geroago, funtzionarioen soldatetatik egunetako diruez jabetuta bildu zuten.

Neurri horren ondoren, garrantzian hurrengoak, “Plato único” eta “Dia sin postre” deiturikoak ziren, askoz originalagoak. Familia bakoitzak hamabostean behin plater bakarra janda edo astean behin postrerik gabe geldituta aldea pezetatan zenbat zen kalkulatu eta gerrako ahaleginerako eman behar zuten. Era horretan, ahalegin ekonomikoa eta morala uztartu zuten. Gerrako beste zerga, “Aginaldo del Soldado” zen, ikuskizunei eta zenbait jakiri zegozkien zeharkako errenergua, hain zuen.

Francoren aldekoak ez zirenei ere zigor ekonomikoak jarri zizkieten.

Panpalona baserria konfiskatu zioten frankistek Florentino Loidiri. Loidi, errepublikanoen aldeko zinegotzi nazionalista zen. Baserriarekin batera, etxe bat, altzari fabrika bat, bi lursail, eta 193.000 partaidetza mailegutan konfiskatu zizkieten. Urte batzuk geroago, 25.000 pezeta ordaintzearen truke berreskuratu zituen.

Sareaburu baserria Donostiako Juan Muñoari konfiskatu zioten.

Isunak ere ugariak izan ziren. Hainbat taberna jaberi isunak jarri zizkieten Mola jeneral frankistaren hileta garaian tabernan jendea izan zutelako. Prozesioak pasatzerakoan arropak eskegita zituzten bizilagunek ere isunak izaten zituzten.

Bestalde, arpilatzeak eta konfiskazioak jasan zituzten, norbanakoek, elkarteek, sindikatuek edo alderdiek. Herria hartu eta berehala ekin zioten Batzokia, UGT-PSOEn Casa del Pueblo eta ELA-STVren etxea hartu zituztenean. Arpilatu ere krudelkeria biziz arpilatu zituzten, eta Batzokiaren kasuan, liburutegiko paper eta liburu guztiak Zumardiko kioskoaren inguruan bota eta su eman zieten, erreketean kantu eta dantzen artean. Etxe horiek indar garaitzaileen artean banatu zituzten.

Norbanakoek ere antzeko desjabetze eta miaketak izan zituzten ebakuatutakoek utzitako etxeetan. Desjabetze horiek gehienetan jende oso apal eta langilearen etxeetan egiten zituzten, eta zituzten tresna eta altzarien arpilatze hutsa bilakatu ziren. Itzuli zirenean, eskuineko familien balkoietan

beren maindireak zintzilik ikusi eta erreklamatu ezinaren iraina jasan behar izan zuten.

Ondasun konfiskazioekin batera lanpostu garbiketak ere izan ziren. Neurri hori oso gogorra izan zen zigortua zen pertsonaren familiarentzat.

25. GERRAREN ONDORIOAK UDALEAN

Gerrak eragin sakonak izan zituen ere udaleko langileen artean. Garai hartan udalak zituen 82 funtzionarioetatik 25 (%30) automatikoki kargugabetuak geratu ziren “abandono de destino” legezko amarrua baliatuta. Langile horiek hautatutako alkateak emandako ebakutzeko agindua bete baino ez zuten egin.

Beste 7 funtzionario espedientearen zain geratu ziren, eta horietatik 4 fusilatuak izan ziren handik gutxira.

Beste bat nahita ere ezin zen agintari berrien aurrera aurkeztu, Iruñean atxilotua baitzeukaten altxatuek kartzela bihurtu zuten San Cristobal gotorlekuan. Gainerako langileak berronartuak izan ziren.

Langileen erdiak, beraz, zigorren bat jasan behar izan zuen.

26. ERRESISTENTZIA

Francoren aurka zeudenak nazioarteko laguntza jaso zuten, aliatuak izena eman zitzaie. Comete Sarea zen Frantziatik barrena Euskal Herrira, eta Espainiara ondoren, aliatuak eramateko sarea.

Hainbat herritarrek Comete sarean parte hartu zuten; aliatuak ekartzen lagundu zuten, beraz.

Haien artean bazen herriko familia bat. Familia hartako bi alabek Altzibarretik Lartzabaleko bidean etortzen ziren bizikletaz atzetik pilotu aliatuak zituztela oinez. Ahizpak elkarrengandik banatzen zirenean, pilotuek ere gauza bera egiten zuten. Ahizpak geratzen zirenean haiek ere bai.



Herrian sartzeko Guardia Zibilak Lartzabalen jartzen zuen kontrola igaro beharra zegoen. Aitak, alaben kontrako bidea egiten zuen. Une jakin batean elkarrekin topo egiten zuten bidean, batzuk alde batera eta besteak bestera. Orduan, aitak alabei kontrolaren berri ematen zien, eta handik igarotzea erraza zen edo ez esaten zien.

Ahizpak atzean pilotuak zituztela herrira heltzen zirenean, Donostiaraino eramaten zituzten, norbaiten etxera edo, zenbaitetan, kontsula jakinaren gainean jartzera.

27. GERRAK EKARRITAKO ESKASIAK: GOSEA

Gerra Zibilak eta haren ondorenak eskasia ugari ekarri zuen herrian. Eskasia edo urritasun horren ondorioz, 1945ean oraindik irauten zuten argiztapen eskasiak eta argi indar korrante ezak.

Bestalde, elikagaien eskasia handia zegoen. Gosete handia ezagutu zuten herritar gehienek. 1939an eta 1940an bi herritar hil ziren gosez.

1939tik aurrera urte gogorak etorri ziren, beraz, gose eta gabeziakoak. Garaituek irainak eta irabazleen harropuzkeria jasan behar izan zituzten, nahiz eta horien artean ere izan zen ametsak porrot eginda ikusi eta etsi behar izan zuenik. Gehien-gehienak bizirautea mugatzen ziren bitartean, zulutik irteten hasi zen herria, hazten hasi zen berriro, eta beraz, garapen azkarreko uneak biziko ziren berriro.

Gerra Zibilaren gaiak konplexutasun handia izan dezake. Horregatik, Koadernoan, gerra haren hainbat aurpegi aukeratu eta marrazkiz adierazi ditugu. Gerra eta haren ondorengo sei pasarte dira: bonbardaketak eta beste hainbat eraso, fusilamenduak, kartzela, ebakuazioak, haurren atzerriratzea eta langile batailoiak, hain zuzen. Irudian, Langile batailoiak Oiartzun ibaia desbideratzen ikus daitezke, atzean Batzokia, *Fabrika Handia* eta Ugarritzako zumardi ederra dutela. Beste aldean, berriz, Papelera ikus liteke.

Gure proposamena da taldea sei talde txikitik banatzea eta talde bakoitzak irudi bat aukeratzea. Horrela, denen artean irudi guztiak aztertuko lituzkete. Talde bakoitzean bozeramaile bat aukeratu behar dute, lana amaitzean gelako gainerako lagunei taldean jasotakoa adierazteko. Kontu handia izan beharko genuke taldekide guztien parte-hartzea bermatze aldera.



Lehenik, irudia ongi begiratu eta aztertzeke eskatuko diegu. Nahi izanez gero, eta ikasleei azterketan laguntzeko, hainbat galdera eskain diezazkiekegu: zein elementu agertzen dira irudian?, zer uste duzu ari dela gertatzen?, Nola dago bertan ageri diren jendea?, zein sentimendu sorrarazten dizu irudiak?

Gero, irudi horretan adierazi nahi den ekintza edo gertaera zehazteke eskatuko diegu. Eta gertaera horren inguruan duten informazioa biltzeko esango diegu.

Azkenik, irudi horrek sorrarazi dien sentipena adierazteke eskatuko diegu; nahi izanez gero deskribatuz edo hitz batez adieraziz.

Jarduera amaitzeko, talde bakoitzeko bozeramaileak gainerako gelakideei landutako irudia azalduko die.

Azalpenaren ondoren, gelako gainerako kideek irudiaz informazioa ote duten galdetuko dugu. Hala bada, adierazteke eskatuko diegu.

Talde guztiek beren azalpena amaitzen dutenean ikasle guztiek marrazki osoaren ideia izango dute. Galde diezaiekegu ea uste duten horrelakoak gurean gertatu diren.

Orduan, nahi izanez gero, eta jarduera osatzeko, ikasle bakoitzari eska diezaikegu irudi bakoitzak sortzen dion sentimendua idazteko.

Jardueran sakondu nahi izanez gero, azalpenaren ondoren irudiak truka ditzakete eta talde bakoitzari liburuetan, Interneten edo etxean galdetuz gelan azalduakoa zabaltzen saiatzeko eska diezaikegu.

Amaitzeko, talde bakoitzari denen artean aztertu dituzten irudiak kontuan izanik, herritarrentzat gerrak zein ondorio izan zituen idazteke eskatuko diegu.

Gaiaren gainean gehiago sakondu nahi baduzue, ikasleei esan diezaikegu etxean galdetzeko Gerra Zibilari buruz. Kontuan izan familia askorengan izan zuela eragina eta familia askotan gordetzen direla gerrako oroitzapenak. Nahi baduzue, elkarriketa horiek grabatzeko eska diezaikezue eta gero gelan entzun ditzakezue.

Gaiari tiraka jarraituz, kontuan izanik hori izan zela gurean izan zen azkeneko gerra, beste bat ekiditeko zer egin beharko genukeen jar dezakegu eztabaidagai.

JARDUERA: Osatu talde txikiak eta aztertu irudi zati bat. Zer dakizue irudian agertzen den egoerari buruz? Zuetako batek lagunek esandakoa jaso dezake ondoren gelako gainerako lagunei azaltzeko.

Koadernoko 6. eta 7. orrialdeak

28. KARLISTADAK ETA INDUSTRIALIZAZIOA

1841ean, Lehen Karlistada galdu zenean, ordura arte Ebro ibaian zeuden aduanak Bidasora lekualdatu zituzten.

Aldaketa aurretik, euskal lurraldeak portu franko gisakoak ziren; hau da, produktuak askatasun osoz sartzen ziren aduanak, zergak ordaintzeko lekuak, Ebroko mugan zeudelako. Ondorioz, euskal herritarrek aukera zuten beren buruak kostu gutxirekin hornitzeko, hornidurak askatasun osoz inportatzen baitziren. Jendeak ez zuen aduanak lekuz aldatzea nahi, hornidurak garestitzearen beldur baitziren.

Egoera horretan, industriak ezartzea, ordea, ez zen erraza, herrialde garatuen lehia oso handia zelako. Aurrera atera ahal izateko inbertsio handiak egiteko eta bertako baliabiderik aberatsenak ustiatzeko gaitasuna behar ziren.

Aduanak lekuz aldatzearekin, hortaz, euskal burgesiak Espainiako merkatua irabazi zuen, merkatu horrek muga zerga handi xamarrek baitzituen Europa Erdiko merkatu kapitalistatik babesteko.

Gipuzkoako industrian “Real Compañía Asturiana de Minas” bezalako kasuak izan ziren orduan, Espainiako barne-eskaintza hornitzeko sortu zelarik. Lantegi hori, hala ere, salbuespena izan zen, martxan jarri zenetik bere ekoizpen guztia esportatzen hasi zelako.

“Sociedad de Tejidos de Lino”k, esaterako, hasiera batean euskal lurretan, Kantauri itsas ondoko hirietan, Aragoi aldean eta Madrilen saltzen zituen bere produktuak. Trenbidea hedatu zenean, ordea, penintsulako ipar-erdiko hirietara zabaldu zituen bere merkatuak eta Kataluniako ehungintza gunee taraino hedatu zen.



29. INDUSTRIALIZATU ZEN HERRIA

Gerrek hondamendia ekarri zuten herrira. XVIII. mendearen amaieran hasitako ekonomia tradizionalaren krisia gehiago okertu zen herriak jasan zituen gerra ugarien ondorioz. Zaila zen, beraz, nekazaritzako langile soberakinak herriko jardunbideetan erabiltzea, eta emigrazioak gora egin zuen nabarmen, batez ere Ameriketarantz. Egoera horrek 1845era arte iraun zuen.

Gerren ondorengo urteak oso latzak izan ziren. Gerra ostekoak, eraikuntza garaiak ziren: hondatutako etxeak berreraiki behar ziren, ekonomia, bizimodua, azken finean.

Karlismoaren porrotaren ondoren, Espainian estatu liberal bat inposatzen hasi zen. Kapitalismoa nagusitzen hasi zen eta hor koka liteke “Sociedad de Tejidos de Lino”, *Fabrika Handiaren*, sorrera. Herrian industria handien aitzindari izan zen oihalak egiten zituen lantegi hura. Hori, 1845ean gertatu zen, Lehen Karlistadaren ondoren. Lantegi horren irekiera hartzen da gure herrian gertatutako Industria Iraultzaren hasiera gisa.

Berehala lantegiak indar handia hartu zuen, 1850ean 300 langile zituen.

Negozioak aurrera egin eta lihoa lantzen zuten beste enpresa txiki batzuk sortu ziren herrian, 1860an lau ziren.

1853an, herriko bigarren enpresa handiena zabaldu zen, “Real Compañía Asturiana de Minas”, hain zuzen.

30. LEHEN BELAUNALDIKO LANTEGIAK KRISIAN

Garai hartako lantegiak herriko hainbat jenderen kapitalarekin sortu ziren. Norberaren herrian lantegi bat eraikitzeak zenbait abantaila lortzeko balio zuen: pertsona edo familia horren eragina sendotzeko tokiko komunitatean, izen ona areagotzeko eta udal karguak errazago eskuratzeko. Enpresari txiki eta ertainek, beraz, nahiago zuten lantegiak bizi ziren tokian edota onibar eta jabetzak zituzten herrian bertan kokatzea, beste toki errentagarriagoak egon arren.



Langileen soldatek biziraupena soilik bermatzen zuten. Diru-sarrerarik handienak industrialari, merkatarik nagusi eta jabe handienak ziren. Askotan, ordea, hiru zeregin horiek pertsona berarengan biltzen ziren. Horrela, lehendik ahaltsuak ziren familiak ahaltsuagoak bilakatu ziren.

Herriko inbertitzaileek hainbat bidetatik pilatu zuten beren kapitala. Ia guztiak, XIX. mendearen lehen herenean udalerriko onibarren zati handi bat (herri barruan nahiz landan) beren esku zeukaten familietakoak ziren: Garbuno, Goizueta, Arizmendi, Gamón, Sorondo eta abar. Horietatik oso errenta onak jaso zituzten.

Horrez gain, familia talde horiek, Udaleko eta Elizako kargurik gehienak berentzat hartu zituzten.

Aipatutako ondasunak, errentak eta karguak merkataritzako jardunbide horiei ekiteko berme eta lorbidetara ziren; izan ere, maila batean edo bestean familia horiek denak negozioetan sarturik zeuden: maileguak eskatu, balio-inbertsioak egin eta Udalak desamortizatutako ondasunak abantaila handiz erosteko aukerak baliatu.

Azkenean, beren artean hitzartutako ezkontzei esker, pilatutako ondasuna are gehiago kontzentratu zen, eta horrek guztiak, asko lagundu zuen industriak sortzen.

1845etik 1868 bitartera, herriko industria etengabe hazi zen. Urte horretan, ordea, hornidura krisia gertatu zen Espainiako nekazaritzan, eta 1869ko finantza-krisia eta politika mailan gertatzen ari ziren gatazkek barne-merkatuaren eskariak behera egitea ekarri zuen.

Lihoaren merkatuak, horien mende zegoenez, kolpe gogorra jasan zuen eta ez zen gehiago suspertu.

Liho alorreko zenbait lantegi itxi zituzten eta gainerakoetan lanpostu asko galdu ziren. Kaputxinoetako lantegiak, “Real Compañía Asturiana de Minas”, soilik eutsi ahal izan zion bere ekoizpenari, esportaziorako lan egiten zuelako.

Egoera horretan, langabezia eta miseria nagusitu ziren herriaz. Bigarren Karlistada hasi zenean, gauzak are gehiago okertu ziren. Krisia orokortu zen eta halaxe amaitu zen herriko industriaren lehen belaunaldia delakoa.

31. ZERGATIK HEMEN

Gure herrian lau aldagai funtsezko zeuden: aldez aurretik pilaturiko kapital nahikoa inbertitzeko prest zeuden enpresarien esku; industriarantz erraz bidera zitekeen baserri-giroko eskulan soberakina; elikadura nahikoa, edo elikagaiak lortzeko aukera, industrian lan egingo zuten herritarrentzat; eta, merkatu bat ekoiztutako produktuentzat.

Hala ere, aldagai horien ondoan izan ziren ere beste faktore batzuk: ura; eskualdeko kokaleku estrategikoa, penintsula Europa Erdiko herrialde kapitalistekin lotzen baitzuen; berezko administrazio erregimena, zentralizaturiko eskualdeena baino eraginkorragoa; eta industralarientzat eta merkatariarentzat onuragarria zen zerga-erregimen pribatiboa.

Bestalde, gure herriak bi baliabide garrantzitsu zituen: portua eta trenbidea.

Kontuan izan, 1845ean, herri-gunea Pasaiako portuaren burualdean zegoela: Gipuzkoako onena zen, eta badiako lursailik zabalenak zituen, eraikin handiak altza zitezkeen bertan, beraz.

Portutik hurbil egotea oso erakargarria zen industriarako, itsas garraioa lur-garraioa baino merkeagoa baitzen: lehengai gehienak herrialde industrialetatik itsasoz garraiatzen ziren.

1864an trenbidea inauguratu zenetik, herria are eta erakargarriagoa bihurtu zen industriarako. Haren bidez, merkantziak herriko merkatu nagusia zegoen Penintsula barnealdeko hirietara garraiatzeak merkatze nabarmena izan zuen.

Eta azkenik, zergen esparrua ere kontuan hartu behar da: garai hartan debekatuta zegoen industriak mugatik 10 km. baino gertuago jartzea. Ondorioz, mugatik gertuago egingo ziren inbertsioak herrirantz bideratu ziren.

Bigarren Karlistada amaitu eta gero, 1886an hasitako krisi luzearen konponbidea zirriborratzen hasi zen, “Olibet e hijo” elkarteak “La Iberica” gailera lantegia eraiki zuenean. Horretarako, ordea, hogeitaz hamar urte pasa behar izan ziren. Hortik aurrera, hurrengo 17 urteetan 11 enpresa sortu ziren. Aurreko aldiko lantegiek bezala, haiek ere produktu ia guztiak barne-merkatuarentzat bideratuta zituzten, kontsumo-produktuetan espezializatua zen, ez zegoen enpresa astunik edo ekipo-ondasun lantegirik, eta produktuak ugariak ziren. Sortu zen bigarren aldi horrek, ordea, aurrekoak ez zituen hainbat ezaugarri



zituen, bi batik bat: bertako kapitalik eza eta atzerriko inbertsioaren garrantzia.

Bigarren belaunaldi horretako enpresen ezaugarri nagusi bat kapital inbertituaren eta lanpostu kopuruaren arteko erlazioa izan zen. Oro har, enpresa berrien kapital sozialaren batez bestekoa lehenengo belaunaldikoa baino 10 aldiz handiagoa bazen ere, 1902an 1.100 ziren lanpostuak; hau da, 1860ko lanpostu kopurua baino zertxobait gehiago. Teknika berriak sartuz geroztik, produktibitatea handitu egin zen. Horri esker, 1860ari dagokionez, produkzioaren balioa biderkatu eta eskulan-kopuruak gora egin zuen.

1901ean “Papelera Española” lantegia zabaldu zuten. Horrek, baikortasunez kutsatu zuen mende hasiera. Garai hartako idatzi guztietan herriko industriaren gorakada eta etorkizun bikaina nabarmentzen zen. Gipuzkoako bigarren herri industrializatuena zen, Eibarren ondoren.

1903an Biteri eskoletan Herriko Industrien I. Erakusketa burutu zen. Lantegi garrantzitsuenak “Papelera Española”, Olibet eta Liho fabrika edo *Fabrika Handia* ziren. Gainera, lantegi horiek zituzten piezen mantenurako eta mekanizazio beharretarako fundizioak eta tailer mekanikoak sortuz joan ziren, Ramon Illarramendi, Jose Ugariza edo Orueta Fundizioak, kasu. Urte horretan, 1.000 langiletik gora ari ziren industrian, kontuan izan garai hartan herriak 4.000 biztanle inguru zituela.

Erakusketa horrekin nabarmen geratu zen herriko izaera industrial. Orduan asmatu zuten “La Manchester guipuzcoana” edo “La Manchester txikia” izengoitia.

Hainbat aldagaik lagundu zuten herriko industriak izan zuen bultzadan: komunkabideak hobetu izanak, 1846an ireki zen Andoain-Irun errepidea, 1864an hasi zen trena eta abar; eta, portuaren gertutasuna.

Herria erabat eraldatu zen ere 1845etik aurrera. Biztanle-kopurua hiru aldiz handiagoa zen; bizilagunen langintzan aldaketa handiak ikusten ziren; emigrazio endemikoa immigrazio bihurturik zegoen; nekazaritzarekin zerikusia zuten jardunbideak herritik urrunden zeuden auzuneetara eraman zituzten (bien bitartean, herriko hirigunea teknologiarik aurreratuenarekin harremanetan zegoen); eta bertako produktu ekonomikoaren balioa izugarri igo zen. Dena den, ez dugu ahaztu behar aurrerapen horiek guztiek lortu arte, herritarren bi belaunaldik lan-egoera negargarria pairatu behar izan zutela, eta XX. mendearen hasieran soilik hasi zela langileen bizi-egoera hobetzen, eta industria kapitalistaren garapenak sortutako onura hedatzen.

32. LEHEN MUNDU GERRAREN ERAGINA

Lehen Mundu Gerrako lehen hilabeteak oso gogorrak izan ziren, gainerako lekuetan gertatu zen antzera.

Hainbat lantegi gelditu egin ziren eta langabeziaren mamua hedatu zen berriro. Hori guztia saihesteko, udalak herri-lan handiak bultzatu behar izan zituen langileei lana eman ahal izateko. Ekimen horren barruan eraiki zuten Alfonso XI etorbidea 1915ean, herri-gunetik trafikoa desbideratzeko.

Ehungintza eta papergintza alorreko lantegiak izan ziren kaltetuenak hasieran. Herrian kezka sakona sortu zuen Papelera itxi edo lana murriztuko zuenaren usteak. Hasierako zailtasunak gainditu ostean, ordea, enpresak etekin handiak lortzen hasi ziren prezioen gorakada handiei esker ez baitzuten inolako lehiarik. Pizgarri bikaina izan zen hori industrigintza osoa sendotzeko. Urte gutxiren buruan “La Papelera”k lau koiztu egin zituen prezioak eta etekinak. Lantegi berri bat zabaldu zuen gainera, Manta Fabrika berri eta modernoa.

Kataluniako enpresa batek Jute lantegia erosi eta modernizatu zuen. Lantegi berriak ere zabaldu ziren: elektroteknia bat, altzariena beste bat, pintura lantegi bat, aroztegi mekaniko berriak eta abar.

Horrek herriko ekonomia goraka aupatu zuen eta finantza-jardunbideak ere ugaltu egin ziren: merkataritza elkarte berriak sortu ziren, lurrin dendak, eraikuntza ugartu zen eta abar.

Garapen ekonomiko garrantzitsu horri esker, industria-gune gisa zuen itzal nabaria sendotzen jarraitu ahal izan zuen.

1924an 70 langileri lana eman zion Euzkaria lantegi elektroteknikoa zabaldu zen. Urte bete geroago, “Esmalteria Guipuzcoana” hasi zen lanean. 1929an, berriz, oinetako fabrika bat zabaldu zen.

Udalak joan den mendeko 30eko hamarkadan egindako estatistika baten arabera, herrian 15 lantegi handi eta beste 19 txikiago zeuden, 34 guztira. 1928an, aldiz, 28 ziren.

1929an “Exposición Ibero-Americana” egin zuten Sevillan. Haren ondorioz Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako beste estatistika baten arabera, 53

produktu ekoizten ziren gure herrian.

Gure herriko industria indartsua izateaz gain, jardunbide-adar anitzak zituen: papergintza, ehungintza, elektrizitatea, zurgintza, galdategiak eta abar.

Koadernoan, industriak gure herrian izan zuen ibilbidearen nolabaiteko laburpena eskaini dizuegu Lanerako tximinia zaharrea txertaturik. Hauexek dituzue datarik aipagarrienak:

1845: Herri-gunea Pasaiako portuaren burualdean zegoen. Gipuzkoako onena zen eta badiako lursailik zabalenak zituen eraikin handiak altxa zitezkeelarik bertan.

1845: “Sociedad de Tejidos de Lino”, Fabrika Handia ireki zuten.

1846: Andoain-Irun errepidea zabaldu zen, geroago N-1 izan zena.

1853: “Real Compañía Asturiana de Minas”ek Kaputxinoen komentua erosi eta mineral biltegia eta kaiak jarri zituen bertan.

1855: “Salvador Echeverria y compañía” zabaldu zuten. Kolera izurritea zabaldu zen.

1864: Trenbidea inauguratu zuten. Herria are eta erakargarriago bihurtu zen industriarako. Herriko merkatu nagusia zen penintsula barnealdeko hirietara produktuak garraiatzeak merkatze nabarmena izan zuen.

1869: Espainiako nekazaritza hornidura krisia gertatu zen.

1869: Finantza eta politika mailako krisiak. Gatazkaren ondoren, barne-merkatuaren eskaerak behera egin zuten. Lihoaren merkatua faktore horien mende zegoenez, kolpe gogorra jasan eta ez zen gehiago suspertu. Nafarrerria izurritea izan zen.

1873: Dekretuz debekatu zen 10 urtetik beherakoak lanean aritzea. Mende amaiera arte ez zen lortu betetzea.

1881: Gipuzkoako azken lau burdinolak itxi zituzten, tartean Añarbekoa.

1886: Olibet galleta lantegia sortu zen.

1889: “La Fabril Lanera” zabaldu zuten.

1890: Papelera zabaldu zuten.

1900: “Sociedad de Manufacturas del Yute de San Sebastian” sortu zen. Espartin lantegia jarri zuten.

1901: Elgorri izurritea, haurren artean oso gogor jo zuen.

1903: Herriko Industrien I. Erakusketa egin zuten: Manchester Txikia izena sortu zen bertan. Herriak 4.000 biztanle zituen eta 1.000 langiletik gora industrian ziharduten.

1904: Lehenengo sindikatua sortu zen, “Sociedad de Oficios Varios”

1912: Donostia-Hendaia lotzen dituen trenbidearen geltokia (Topoa) inauguratu zuten.

1913: Lehen greba emakumeek bultzatua.

- 1914: Lehen Mundu Gerra. Hainbat lantegi gelditu egin ziren eta langabezia handitu zen: ehungintza eta papergintza izan ziren kaltetuenak.
- 1915: Langabezi handiari aurre egiteko Udalak herri-lan handiak bultzatu zituen. Alfonso XI. etorbidea, besteen artean, garai hartako herriko saihebidia.
- 1919: 8 orduko laneguna lortu zuten.
- 1920: 10 greba egin ziren soldata igoera, aparteko orduen eta istripuen ordainketak, lan arloko hobekuntzak, ugazabek sindikatuen ordezkaritza onartzea eta elkartzeko askatasuna ziren eskabideak.
- 1921: Bi greba egin ziren, bietan langileek porrot egin zuten. Ondorioak izan zituen sindikalgintzan eta politikagintzan.
- 1922: Greba bakarra egin zen.
- 1923: Bi lanuzte txiki egin ziren, ia eraginik gabekoak.
- 1924: Euzkaria lantegi elektroteknikoa sortu zen.
- 1925: "La Esmalteria Guipuzcoana" sortu zen.
- 1928: Herrian 28 lantegi zeuden. Haietan 53 produktu ekoizten ziren.
- 1929: Oinetako fabrika bat zabaldu zuten.
- 30eko hamarkada: 34 lantegi zeuden herrian: 15 handi eta 19 txikiago.
- 1954: Herriko II. Industria Erakusketa zabaldu zen.
- 1975: Paisa desagertu zen.
- 80ko hamarkada: Industria gogor astindu zuen krisi ekonomikoak. Lantegi asko itxi ziren.
- 1988: Fabrika Handia, Lino, eraitsi zuten.
- 1988: Alkoholera eraitsi zuten.
- 1994: Esmalteria eraitsi zuten.
- 2004: Niessen eraitsi zuten.

33. LAN BALDINTZAK

1900 aurreko lantegien datuak galdu egin ziren. Beraz, ez dago garai hartako lanorduen gaineko informaziorik. Garai bertsuan beste zenbait liho lantegietako langileek egunean 14 eta 16 ordu lan egiten zituztela kontuan izanik, horren inguruan ibiliko ziren ere *Fabrika Handiko* langileak.

Bazeuden, era berean, astean 69 ordu lan egiten zuten lantegiak: 12 ordu astegunetan eta 9 larunbatetan.

Egoera zaila bizi zuten langileek eta eskubide gutxi zituzten. Beren eskubideen alde borroka egiteko gogoia piztu zitzairen: 1919ra arte ez zuten lortu, ordea, zortzi orduko lanaldia, ez zen borroka erraza izan, gainera.



Borroka luzeen ondorioa izan zen zortzi orduko lanaldiaren lorpena.

1904an sortu zen herrian lehen sindikatua, “Sociedad de Oficios Varios” izenekoa. Lehen greba 1913an egin zuten emakumeek bultzatuta.

Herriko lehen lantegietan aritutako langileak bertakoak ziren. Horiekin batera, Oiartzun, Lezo, Altza, Pasaia, Arano eta Goizueta inguruko herrietako langileak ere aritu ziren.

Soldatei dagokienean, orduan ere txikiak ziren. Lantegi batetik bestera baziren aldeak, baina denak, hala ere, txikiak ziren. Emakumeek gizonek baino askoz soldata baxuagoa zuten nahiz eta lan bera egin.

Kontuan izan behar da emakume askok lan egiten zutela lantegietan: 1903an, industria arloko lanpostuen % 40,66 emakumeek betetzen zuten. 1915ean, berriz, % 37,26 ziren.

Ehungintza alorreko lantegiak, galleta-lantegiak eta neurri apalago batean Papelera ere baliatzen ziren langintza horietan eskarmentu handia zuen eskulan merke horretaz, ekoizpen kostuak txikiagoak baitziren.

Neska mutil ugari zegoen ere lantegietan, 1903an, esaterako, 16 urtez azpiko 71 mutil eta 60 neska aritzen ziren lanean. Horiek, jakina, soldata txikiagoak jasotzen zituzten.

Soldata horiek behar-beharrezkoak ziren elikagaien prezioekin alderatuz gero, lan erraza da familia gehienen estualdiak irudikatzen.

Ondorioz, eguneroko dieta jaki bakarrekoa izaten zen, oro har; hots, garbantzu, dilista, babarrun edo babak patatekin edo arrozarekin egosiak, tartean urdai, bakailao edo haragi pusketaren bat zutela.

JARDUERA1: Hainbat garaitan izandako lan baldintzak aztertzea proposatu nahi dizuegu hurrengo jardueran.

Historian zehar gure herriko lantegietan langileek izandako hainbat lan baldintza aipatzen dira testuan. Hori irakurri eta aztertzea proposatu nahi dizuegu. Segidan, ikasleek ezagutu ditzaketan lan baldintzen alderatzea proposatzen dizuegu.

“1870 arte, lanegunak 12 edo 13 ordukoak izaten ziren. 1880az geroztik, berriz, 10 edo 11 ordukoak.

Lantegi batzuetan astean 69 ordu egiten zituzten: 12 astegunetan eta 9 larunbatetan.

1919an, borroka gogorren ondoren, 8 orduko laneguna lortu zuten.

Soldatak txikiak izaten ziren, eta lantegi batetik bestera aldeak izaten ziren.

Emakumeek gizonen baino soldata askoz baxuagoa zuten, erdia baino gutxiago gehienetan, lan antzekoa egin arren.”

Hainbat galdera proposatu ditugu ikasleek bete ditzaten:

Zenbat ordu egiten dute lan langileek?

Zuen gurasoen lantegietan berdin irabazten al dute gizonen eta emakumeek?

Zeren arabera daude soldata desberdinak?

Zerk uste duzu kezkatzen dituela egungo langileak?

JARDUERA2: Koadroan herrian ekoizten ziren produktuen zerrenda aurkituko duzue. Irakurri eta gaur egun zein produktu ekoizten ote diren ikertzen hasiko gara.

Eta zein produktu ekoizten ote dira gaur egun gure lantegietan?

Zuen etxekoek ere beren lanarekin ekoiztuko dute produkturen bat edo haren ekoizpenean lagunduko dute.

Bildu informazioa eta osatu zerrenda.

JARDUERA: Bi zerrendak osatuta, herriko lantegietan ekoizten direnak eta gelakoan etxekoan ahaleginarekin ekoizten dena ezagutuko dugu. Nahi baduzue, emandako zerrendarekin aldera dezakezue, zein produktu jarraitzen diren ekoizten konparatuz edo zergatik aldatu ote diren ekoiztutako produktuak hipotesiak eginez.

JARDUERA4: Jarduera honetan haurren lanean sakondu nahiko genuke. Horretarako, garai batean gure herrian haurrek zein adinetan eta zein

baldintzatan lan egiten zuten ezagutu dezakete testuaren bidez.

Argazkian ere, Illarramendi lantegiaren aurrealdean bertako langileen argazkia ikus liteke, tartean lantegiko haurrak.

“Gure herriko lantegi haietan haurrak ere aritzen ziren lanean. 1903an, adibidez, 16 urtez beherako 71 mutil eta 68 neska ari ziren lanean. Langileak, guztira, 1.178 ziren.

Haurrak 8 urterekin hasten ziren lanean eta helduen ordutegi bera izaten zuten. 1873an dekretuz debekatu zuten 10 urtetik beherakoak lanean aritzea. Mende amaiera arte, ordea, ez zen agindua bete.

Haurrek ere, emakumeen moduan, gizonek baino gutxiago irabazten zuten”.

Testua irakurri ondoren, ikasleei galde diezaiekegu ba ote zekiten testuak adierazitakoa eta zer iruditu zaien. Ondoren, hainbat ariketa proposatu dizkizuegu hausnartzen jarraitzeko.

Kalkulatu: 1903an gure herriko langileen %..... 16 urte baino gutxiago zituen. Zergatik uste duzu lan egin beharko zutela:

- a. Ez zutelako ikasi nahi*
- b. Etxean diru beharrean zeudelako*
- c. Dirua nahi zutelako litxarreriak erosteko*

Zeri ematen diozu balio handiena?

- a. Diru asko irabazteari*
- b. Gustura lan egiteari*
- c. Lan ahalik eta gutxien egiteari*

Oraindik munduko hainbat tokitan haurrek lan egiten dute. Zer dakizu horri buruz?

Eta zein da zure iritzia?

Norberak ariketak bete ondoren, erantzunak komentatu daitezke. Lana, ahalegina, dirua, kontsumismoa, eskubideak eta gisako balioen gainean aritzeko aproposa izan daiteke.

JARDUERA5: Zergatik esaten ote zioten Manchester Txikia?

Eta guri “Galleteroak”?

Koadernoko 8. eta 9. orr

34. LANGILEEN OSASUNA

Langileek diru-sarrera urriak izaten zituztenez, etxebizitza beste hainbat familiarekin erdibanatu behar izaten zuten.

Biztanleriaren hazkunde azkarra zela eta, 1860an zerbitzu mailako hainbat akats azaltzen hasi ziren, saneamendu-sistematik hasita.

Komunak etheen kanpoaldean egoten zirenez, gorozkiak-eta zuzenean botatzen zituzten zanga edo lubakietara. Lubaki horiek, beraz, ur beltzak isuritzen zituzten. Garaiko txostenen arabera, ubide horiek benetan kirasdunak izaten ziren.

Bizi kalitatean hiru faktore erabakigarrienak hauexek izan ziren, eta aztarna utzi zuten heriotza tasan: habitata, lanbidea eta elikadura.

Habitatari dagokionean, lantegiak eraiki zirenetik, aldaketa handiak gertatu ziren habitatean, eta, ondorioz, biztanle-pilatzea eta etxeetako saneamendu ezak arazo larriak bihurtu ziren.

Baserrietan arazo horiek ez ziren hain latzak izan, baserrietako osasun egoera enbidiagarria ez bazen ere. Baserritar gehienek bizimodua kanpo librean egiten zenez, etxe zaharretan bizilagunen osasunak ez zuen etxe berrietan adina kalte jasotzen. Horregatik, heriotza-tasak landan herrian baino askoz txikiagoak ziren.

Herrian bizi ziren guztiek ez zuten berdin jasaten heriotzaren zigorkada, beraz. Horren arabera, herritarren osasunari eta bizi-egoerari egindako kaltearen arrazoia ez da soilik jende-pilatzea.

Herriko hirigintzak sortutako eragin kaltegarriez gain, oso kontuan hartzeko beste faktore bat ere izan zen: etxebizitzetako espazioa modu sinestezinean banaturik zegoen, eta, ondorioz, bizigarritasuna arrisku bizian jarri zen. Hori arazo benetan larria izan zen herrian; ez, ordea, baserrietan, haietan ez baitzen hainbesterakoa izan.



Bestalde, laster frogatu zen lantegiko lana baserrikoa baino askoz kaltegarriagoa zela. Lantegiak itxita eta gaizki egurastuta egoten ziren. Lantegietan benetan igarotako denbora lanegun delakoarena baino ordu eta erdi edo bi ordu gehiagokoa izaten zen, normalean langileak ez baitziren lantegitik ateratzen hamaiketakoa egiteko edo bazkaltzeko.

Haurrak 8 urterekin hasten ziren lanean eta beren lanegunak helduenak bezalakoak izaten ziren.

1873an, lehen aldiz, 10 urtetik beherakoak lantegietan lanean aritzea debekatu zen dekretuz. Mende amaiera arte utzi zuten dekretua, hala ere, betegabe.

Eskulangintzako eta nekazaritzako lanekin alderatuta, industriako lanak aldaketa handiak ekarri zituen: lantegietako diziplina zorrotza, lan aspergarri eta errepikakorra, ordutegi gogorak eta aldaezinak eta abar. Langile ez-industrialak gau/egunarekin eta urteko sasoiarekin moldatzen ziren lanean. Lantegietan, ordea, argi artifizialaz eta erloju mekanikoaz baliaturik, ordutegi aldaezinak ezarri zituzten. Zeregin mekanizatua zela eta, diziplina eta ekoizpen erritmo zorrotzagoak izan ziren. Eta horrek guztiak zuzenean eragin zuen langileen osasunean.

Izurriteak ere izan ziren, bi batik bat: 1855ean kolera izurritea sortu zen eta 1869an, berriz, nafarrieriarena. Bi izurriteek hildako asko eragin zituzten eta heriotza-tasa asko handitu zen. lehen izurritean mila biztanleko 48,5 hildako izan zen eta bigarrean, 69, 23.

Izurriteen eragina handiagoa izan zen herriko jendearengan nekazariengan baino. Hala ere, industrialarien eta lanbidedunen heriotza-indizea, nekazariena baino baxuagoa izan zen.

35. LANGILEEN ELIKADURA

Herriko langileen elikadura urria eta eskasa zen; gainera, ez zen nahikoa pertsona heldu baten energi gastua berritzeko adina asebetetzeko.

Langileen ohiko elikagaiak hauek ziren: ogia, ardoa, zenbait barazki eta patatak. Familia langileen etxeetan haragi gutxi jaten zen, egun berezietan eta gaixoadietan. Horren orde, urdaia erosten zuten. Urdaia merkeagoa eta

kaloria gehiagokoa bazen ere, ez zituen hainbeste proteina.

Proteinetan oparoak ziren beste jaki batzuk, esnea eta arrautzak, esaterako, mende hasiera arte gutxitan jaten ziren, gaixoaldietan, soilik.

Fruta eta barazki freskoak, berriz, ia ez ziren herriko jendearen elikaduran azaltzen.

Elikagai freskoak kontsumitzen ez zirenez, A eta C bitaminak eta hainbat mineral urriak ziren. Horrelako jan-neurri eskasarekin organismoa ez zen behar bezala garatzen eta gaixotasunen aurrean ahuldurik uzten zuten gorputza, batez ere haurren kasuan. Beraz, ez da harritzekoa haurrak izatea 1880an gertatutako nafarrieriaren eta elgorriaren biktima nagusiak.

Bestalde, pobrezia eta miseria lantegiak sortzearekin batera agertu ziren. Hasieran, antza, bertakoak ez omen ziren oso kezkatu agertu langileen familiek nozitzen zuten sorospen-egaren aurrean.

XIX. mendearen amaieran, ordea, elkarrekiko laguntza bermatzen zuten hainbat elkarte sortu ziren, gaixoei diruz lagundu eta sendagaiak ordaintzeko.

Udalak, gainera, Udal Babesetxea eraiki zuen, “hospitalilloa”, behartsuei eta ahalbiderik gabeko gaixoei laguntzeko.

36. INDUSTRIAK ERAGINDAKO ALDAKETAK

Horrek guztiak nabarmen eragin zuen jendartean. Biztanleriaren hazkunde erritmoa handitu egin zen, eta horrekin batera, immigrazioa, industriagintza, itxaropenak, higikortasun soziala eta abar.

Era berean, elikagaien prezioak asko igo ziren. Horregatik, garai haiek enpresari eta finantza munduko jendearentzat irabazi handiko urrezko urteak izan ziren bitartean, soldatapeko langileei abiada bizian urritu zitzairen erosmen ahalmena. Ondorioz, bizitzeko egoera ere txartu egin zitzairen: elikagaiz hornitzeko arazoak, bizimoduaren garestitzea, biztanleria ugaltu eta etxeetako errentak igo ondoren etxebizitzak lortzeko zailtasunak eta abar.

Garai hartako zenbait gertaerak -1917ko Errusiako Iraultzak, esaterako-, eragin handia izan zuten iritzi publikoan. Horiek erabateko aldaketak eragin zituzten herriko jendarte-harremanetan. Harreman horiek aldi berri batean

sartu ziren eta lan gatazkak eta sindikatuen protagonismoak izan ziren garai hartako bereizgarri nagusienak.

37. PAISAIA ALDAKETAK

Industrializazioak, zalantzarik gabe, aldaketa asko eta maila desberdinetakoak ekarri zituen.

Herriko garai industrialaren hasiera 1845aren amaieran kokatu da, “Sociedad de Tejidos de Lino”ko tximinia garaia agertzen hasi ziren urtea, hain zuzen, hura izan baitzen herriko lehen industria modernoa.

Hala ere, lantegi hori sortu zenetik, herrian izandako aldaketak ez ziren soilik estetikara mugatu: aitzitik, lantegiko tximinia garaia aro berrien lehen iragarleak izan ziren, industrializazio kapitalista martxan zen seinale.

Garai hartako grabatuek erakusten dutenez, herriko itxura tradizionala guztiz aldatu zen industrien silueta lerdinak zirela-eta. Ordura arte, elizaren gorputz itzela eta harresietako ate ondoko dorretxe boteretsuak soilik nabarmentzen ziren.

Industrializazioarekin, beraz, herriko paisaia aldatu egin zen. Laster desagertu ziren herri-gunetik nekazaritza jarduerak, harresi barruko lursailak izan baitziren lehenak urbanizatzen. Orube horiek nabarmen garestitu ziren, ondorioz.

Hala ere, 1860an baratze bat edo beste geratzen zen oraindik. Behien ukuiluak pixkanaka desagertu egin ziren; txerrikortak, baina, ez ziren desagertu, familia askok hazten baitzituzten jateko. Osasun arazoak zirela medio, Karlistadak bukatutakoan, debekatu egin zituzten txerrikortak. Agintariak, ordea, ez ziren gai izan araua betearazteko, eta joan den mendearen hasieran ehunaka txerri hazten ziren oraindik herriko etxeetan.

Herriak jasan zuen beste aldaketa garrantzitsu bat Donostiarako errepide berriaren trazaketa izan zen.

XIX. mendearen azken urteetan sortutako industria iraultza hark herriak ordura arte zituen komunikabideak hobetzea eskatu zuen.

Donostiara joateko bideak, Pontikatik barrena, Galtzaraborda eta Zamalbide



igarotzen zituen, Ametzagainatik barrena Donostiara heltzeko.

1846an, ordea, *Fabrika Handia* ireki berria zela, gure herria Andoain, Donostia, Pasaia eta Irunekin lotzen zituen errepide berria ireki zuten.

Errepide hori egiteko, Kapitaneneako eta Santxoeneako etxe batzuk bota behar izan zituzten kaleak bitan erdibituz eta errebaletako kaia desagerraraziz. Horrela sortu zen Biteri-txiki izenez ezagutzen den kalea. Horren guztiaren ondorioz, betidanik herriak izan zuen egitura itxuraldatua geratu zen.

Herriaren izaera guztiz baldintzatu zuen beste ekintza bat haxe izan zen: 1861ean, udalak eta herriko industrialariek (“Real Compañía Asturiana de Minas” izan ezik) protesta egin zuten trenbideko trazatuarekin ados ez zeudelako. Desadostasunaren arrazoi nagusia, Kaputxinoetako zubiaren eraikuntza zen. Zubiaren eraikuntzak, herri-gunerainoko nabigazioa eragotziko baitzuen.

Trazatu alternatiboa proposatu zuten, Topoak egiten duen ibilbidearen inguruan zihoana, baina azkenean “Real Compañía Asturiana de Minas”-ek eragin handiagoa izan zuen. Zubia eraiki zen eta itsasorako sarbidea behin betirako itxi zen.

38. BIZI-EGOERA MATERIALETAN ETA EGITURA SOZIOEKONOMIKOETAN ALDAKETAK

Herriak alor horietan ere aldaketa nabarmenak jasan zituen. Ez da pentsatu behar, ordea, aldaketa horiek guztiak mekanikoki eta zuzenean heldu zirenik bizitzako alor guztietara.

Nekazaritza alorrean, esaterako, ekonomia tradizionalerako hainbat aztarna ez ziren desagertu; aitzitik, industrializazio kapitalistak egindako ahalegin izugarriari aurre egin zieten, nekazaritzako ekoizpena merkantilismoaren eta modernizazioaren barruan sartu nahi zutelako. Egia esateko, baserrian egindako aldaketak baserriaren bilakaerak berak eskatutakoak izan ziren.

Pentsamenduaren alorrean, eliza katolikoak jarraitu zuen herritarren pentsamendua kontrolatzen, erlijio gabetasun zirrikitu batzuk agertzen hasiak baziren ere. Hala ere, mugimendu horrek ez zuen hiri handietan eta industriako gune erraldoietan adina garrantzia izan.

Bestalde, herrian emakume langile asko izan arren, eta zenbait horren beldur bazen ere, ez zen gertatu gizon eta emakumeen jokabide arauen krisirik; aitzitik, genero sistemak ia aldatu gabe iraun zuen apaizen, moralisten, agintarien eta baita gizonak kontrolaturiko langile elkarte berberen ahaleginei esker.

Hala ere, hortik aurrera, hamar urteren buruan, herriko jendartearen sekularizazioak urrats garrantzitsuak eman zituen: erlijioabetasunak aurrera egin zuen eta baita langileen eta klaseen elkarteek ere.

Bizitza politikoa biziagotzeaz gain, sistemaren alderdi politikoak ere finkatu ziren. Horrez gain, eta jadanik zatituta zegoen karlismoaren kaltetan, gaurko euskal sistema politikoaren bi elementurik oinarritzkoenak ere sortu ziren: mugimendu sozialista eta euskal nazionalismoa.

39. JENDARTE EGITURAN ERAGINDAKO ALDAKETAK

Industrializazioa hasi eta bi hamarkada igaro ondoren, lantegietako langileak, proletalgoa, populazio talderik handiena bihurtu zen. Ondorioz, nekazarien nagusitasuna amaiturik zegoen.

Bien bitartean, herriko hazkunde demografiko sendoa zela eta, gune geografiko eta soziala hiriztatzeko lehen urratsak eman zituzten.

Elikaduraren esparruan, ardoak sagardoa ordezkatu zuen eta gariz eginiko ogiak, berriz, artoz eginikoa. Horrekin batera, haragiaren kontsumoak gora egin zuen, batez ere urdaiarenak.

Kulturalki kanpoko hizkuntza gehiago erabiltzen hasi zen, euskararen kaltetan, garai hartan euskara bertako hizkuntza nagusia zen arren.

Bestalde, langileen aldeko lehen elkarteak eta erlijioaren aurkako lehen aztarnak ere azaltzen hasi ziren.

40. LAN GATAZKAK: GREBAK

Langileek protagonismo handia izaten hasi ziren 1920an.

Aurretik esan bezala, bizitzeko egoera zaila zen eta langileen elkartzeko joera sendotuz zihoan. Klase borrokaren eraginez jendarteko harremanak aldatzen ari zirela ikusi zuten alderdi politikoek, iritzi publikoak, prentsak, eta abarrek. Ondorioz, “arazo soziala” haientzat ere buruhauste bilakatu zen.

Urte horretan, 1920an, hamar greba baino gehiago izan ziren gure herrian. Eskabide ohikoenak: soldata igoerak, aparteko ordu edo istripuen ordainketak, lan arloko hobekuntza batzuk, ugazabek sindikatuen ordezkaritzaren onarpena edo elkartzeko askatasuna izan ziren.

Greba gehienetan akordioak sinatu ziren. Ondorioz, langileen eskabide garrantzitsuenetako batzuk erdiesteaz gain, sindikatuek itzal eta begirune handiagoa izan zuten langileen artean.

Hurrengo urtean, 1921ean, ordea, bi greba soilik izan ziren, biak azaroan: bat, “Caralt, Perez Cía” enpresako emakume iruleek egin zuten, 10 orduko laneguna eginarazi nahi zirelako (legezko laneguna baino 2 ordu gehiago, alegia); eta, bestea, Papelerako langileek egindakoa soldaten beherapenagatik kexatuz. Bietan porrot egin zuten langileek.

Porrot horiek eragina izan zuten sindikalgintzan eta politikan. Alderdi sozialista zatitu zen eta alderdi komunista sortu zen.

Zatiketa horiek eta gainerako sindikatuen militantzia galerak zirela-eta, ia desagertu egin ziren lan arloko gatazkak. 1922an greba bakarra izan zen Illaramendi lantegi mekanikoan. 1923an, berriz, bi lanuzte txiki besterik ez ziren izan, upelgileena eta ebanistena, biak ere eragin txikikoak, bietan sindikatu anarkista izan zelarik protagonista nagusia.

41. EMAKUMEAK ETA LANGILEAK

Gure herriko emakumeek garrantzi handiko lana egiten zuten lantegietan. Egiatzatu ahal izan denez, emakume langileek jasandako makaltze fisikoa gizonezkoek jasandakoa baino handiagoa zen; horrela frogatzen du emakume-langileen heriotza-tasa handiak.

Izan ere, emakumeak lantegietan lanean hasi zirenean, sexu/generoa ez zen ezertarako kontuan hartu. Gizonen eta emakumeen zereginak lehen bezala jarraitu zuten, eta, ondorioz, kasurik gehienetan, emakumeak lanegun bikoitza egin behar zuen: lantegian 10-12 ordu lan egin ondoren, etxeko lanak egiten hasi behar izaten baitzuen.

Emakumeek lantegien mundu ezezagunari aurre egin behar izan zioten. Izan ere, emakumeak ez baitzeuden prestatuak mundu hartan jarduteko: neskatoen heziketa-prozesu osoa etxeko lanetara mugaturik zegoen-eta. Horren ondorioz, emakume langileak erabat bazterturik eta gutxietsita zeuden lantokietan: gutxiago kobratzen zuten, lan berberak eginagatik ere; gizonen agindupean zebiltzan beti; eta beren kexak ez zituzten aintzat hartzen, gizonek bermatuak ez baziren, behintzat.

XIX. mendeko gure herriko industriaren ezaugarri bat bere lantegietan enplegatzen zituen emakumeen proportzio handia izan zen.

Herriko industrian ehungintzako eta elikadurako lantegiak gailentzeak emakumezkoen enplegua ugazitzen lagundu zuen, horiek baitziren emakumeak kontratatuzeko joera handieneko sektoreak.

1903an, 14 lantegi zeuden. Haietan, 1.178 langile aritzen ziren. Horietatik, 479 (% 40,66) emakumeak ziren. Horietatik 60k (% 12,53) 16 urte baino gutxiago zituzten eta 78k (% 16,28), berriz, 50 urte baino gehiagokoak ziren. *Fabrika Handian*, 181 langile emakumeak ziren eta 65 gizonezkoak. Bi urte lehenago, 1901ean, Fabril Laneran, 66 langile emakumeak ziren eta 55 gizonak.

Emakume horien soldata, ordea, ez zen gizonezkoenaren erdira iristen, nahiz eta lanaren gogortasunari eta monotoniari edo lanaldiaren iraupenari zegokionez inongo abantailarik ez izan gizonezko lankideen aurrean.

Lan baldintza eta bizi baldintza gogor horiek eragingo zuten, seguruenik, emakumeak langile borrokako mugimenduan buru-belarri murgiltzea.

Emakumeek, gainera, berebiziko garrantzia izan zuten lantegietan lortu ziren hainbat hobekuntzatan. 1913an, esaterako, egin zen lehen greba, zortzi orduko lanegunaren alde. Greba hura, emakumeek bultzatua izan zen.

“Manufacturas del Yute” lantegiko emakumeek 1919ko uztailean deitu zuten greba. Greba hartan, indar publikoek esku hartu zuten gertatu ziren garrantzi

gutxiko hainbat istilutan. Urte horretan bertan sortu zen, dirudienez, 200 emakume langile afiliaturik zituen “Sindicato Catolico Libre Femenino de Renteria” izenekoa. Tradizioaren eta heziketaren eraginez, ideia katolikoek indar handia zuten emakume langileengan. Horregatik, “Sindicato Catolico Libre”-k arrakasta handia lortu zuen herrian hain ugari ziren ehungintza alorreko emakume langileen artean.

Urtebete geroago, Linoko emakumeek ere egin zuten greba. Arrazoia, lan baldintzen hobekuntza eta kaleratutako lankide emakume batekiko elkartasuna izan ziren. Greba bi hilabetez luzatu zen, eta langileek galdu zuten, ugazabak ez baitzituen bertan behera utzi nahi izan isunen ordainketak, langileek eskatu zioten bezala.

Hurrengo urteetan, emakume langileen jarduna industriari %19,02raino jaitsi zen. Jaitsiera hori, besteak beste, gizezkoen eskulana soilik behar zuten industria sektoreak handitu zirelako eta, horretaz gain, emakumeen lanari buruzko legezko kontrola eta emakumeen soldaten igoera erlatiboa handiagoak izateak, gizezkoenak baino apalagoak izan arren, emakumeak kontratatzeari errentagarritasuna kendu ziolako gertatu zen.

JARDUERA1: Herriko emakume langileen gaineko hainbat datu eskainiko dira testu honetan. Ikasleei datu horien ehunekoak ateratzea eskatuko zaie.

“Emakume askok lan egiten zuten gure herriko lantegietan. 1903an zeuden 14 lantegietan 1.178 langilek lan egiten zuten. Horietatik 479 emakumeak ziren; hau da, %....

60k, %...., 16 urte baino gutxiago zituzten.

78k, %...., 50 urte baino gehiago zituzten.

Fabrika Handian, 181, %...., emakumeak ziren eta 65, %...., gizezkoak. Laneran, 1901ean, 66,%...., emakumeak ziren eta 55, %.... gizonak”.

“Gizezkoek baino diru gutxiago ordaintzen zirenez, eskulan merkea ziren. Batez ere, ehungintza, gailetagintza eta, neurri apalagoan, papergintzan aritzen ziren.

Garrantzi handiko lana egin zuten herriko lantegietan. Lantegian lan egin ondoren etxeko lanak egiten jarraitu behar izan zuten. Hala, lantegian 12 orduz lan egin ondoren, etxeko martxa eramaten zuten.

Ondorioz, makaltze fisiko handia pairatu zuten eta horrek isla izan zuen heriotza tasan.

Gainera, emakumeak baztertuta eta gutxietsita zeuden lantegietan.

Egoera horretan, buru-belarri murgildu ziren langile borrokan.

Emakumeak izan ziren 1919an 8 orduko lanegunaren aldeko greba deitu zutenak. Indar publikoek esku hartu zuten gertatu ziren istiluetan.

Urtebete geroago, emakumeek bi hilabeteko greba egin zuten lan baldintza duinak eskatu eta kaleratutako emakume langile batekiko elkertasuna adierazteko.

Hurrengo urteetan, emakume langileen jarduna jaitsi egin zen. Gizonezkoen eskulana soilik behar zuten industria sektoreak handitu zirelako eta emakumeen soldata igoerek, eskasak izan arren, emakumeak kontratatzeari errentagarritasuna kendu ziolako”.

Testua irakurri ondoren, egungo emakume langilearen gaineko ikerketa moduko bat egitea proposatu nahi dizuegu. Horretarako, eta gelako haurrek erraz lortu dezaketen informazioa baliatuz, hiru emakume belaunaldiren datuak bilduko ditugu: amona, ama eta gure ikasleena, biharko emakume langileena, alegia. Azken horien kasuan, haien nahia izango da, noski. Gainera, zein sektoretan aritzen diren edo zein produkturen ekoizpenean galde diezaiekegu.

Ondoren, taula osatuta dutenean, ondorioak ateratzeko eskatuko diegu.

Nahi izanez gero, aldameneko gelakoekin erkatu ditzakegu datuak edo beste auzo batean dagoen ikastetxeren batekin.

Osa ezazu taula azterketa egiteko:

	Lana etxetik kanpora		Zein sektoretan?
	BAI	EZ	
Gure amonek%....%....	
Gure amek%....%....	
Eta guk?%....%....	

ONDORIOA:

42. JOXEPA ANTONI ARANBERRI PETRIARENA

1865eko urtarrilaren 7an jaio nintzen. Gure ama, Maria Luisa, *Xenpelarren* arreba zen; osaba nuen, beraz. Horregatik, askok, Joxepa Antoni *Xenpelar* esaten zidaten.

Ez nuen aukera handirik izan haiek bertsotan entzuteko. Baztanga izurritean osaba gaixotu eta amak zaindu zuen, hura ere kutsatu zen arte. Hamar eguneko tartean hil ziren biak. Lau urte nituen.

Ikasteko grina handia izan nuen. Handik eta hemendik inguratzen nituen liburuak irakurtzea gogoko nuen.

12 urterekin hasi nintzen *Fabrika Handian* ehule gisa lanean, ama eta osaba bezala. Horretan aritu nintzen itsutu nintzen arte. Liburuak uzten zizkidan lagunak takoizko zapatak utzi zizkidan, txikia nintzenez lantegitik botako ninduten beldurrez. Buruan zapia janzten nuen zaharragoa emateko.

Gure garaian ez ginen asko emakume bertsolariak. Europako Gerra, *Fabrika Handia*, Madalenako ermita, Maria Birjina eta abar izan ziren bertsoetarako gaiak. Hala ere, nire bertso famatuenak herrikide nuen Enrike Elizegirekin trukatu nituenak izan ziren.

Hark, Bilboko *Ibaizabal* egunkariko bertso lehiaketa irabazi zuen neskazaharrei jarritako bertso batzuekin. Han esan zituenak biziki haserretu ninduen.

Santxoenea kalean bizitu nintzen 1943ko abenduaren 29an minbiziak hil ninduen arte. Azken 20 urteakitsu pasa nituen.

JARDUERA: Emakume langileen munduan sakontzea proposatu nahi dizuegu jarduera honetan. Horretarako, lehenik eta behin, zein den egun horren ospakizunaren mamia aztertuko dugu. Ondoren, jendeak gai horri buruz duen ezagutza neurtzeko hamar laguni galdetzea proposatu dugu. Lagun horien aukeraketa librean utz dezakezue edo mugatu: etxeoak, edozein herritar, auzokideak, jende heldua, gaztea, aukera asko dituzue. Kontuak, gertaera horren berri zenbatek duten eta zenbatek ez duten jasotzean datza.

Material osagarria: Joxepa Antoni emakume langilea zen. Martxoaren 8an ospatzen dugu Emakume Langileen Eguna. Zergatik ote? Bildu ahalik eta informazio gehien eta ondoren aukeratu hamar lagun.

[“Emakumearen eguna” testua](#)

Koadernoko 11. orrialdea

43. ZAPIRAIN ANAIK

Joxe Zapirain Aranburu 1873an jaio zen, Bordaxar baserrian. Anaietan gazteena zen eta hura gelditu zen etxerako. Bertsolari oparoa izan zen, bere anaia Juan Krutzekin batera, Zapirain anaiak bezala ezagunak.

Joxe eta bere emazteak bederatzi seme izan zituzten, alabarik bat ere ez: Juan Joxe, Joxe Fernando Ramon, Joxe Antonio, Xaturdino, Joakin, Xalbador (*Ataño* bertsolaria), Juan Krutz, Manuel eta Joxe Mari.

Etxeko denak, Xaturdino izan ezik, gripez kutsatu ziren. Ama izan ezik denak sendatu ziren. Amak, ordea, haurra egin berria zuen eta ahulago izango zenez, gero pneumoniaz gaixotu eta gazterik hil zen.

Aitak hazi zituen, beraz, bederatzi semeak.

Gerra Zibilak bete-betean jo zuen familia hori, beste asko bezala. Joxek egindako *Len hamar lagun giñen* bertsoek ongi jasotzen dute etxean gertatutakoa.

Gerra Zibila hasi zenean, anaia zaharrenak 30 urte zituen eta gazteenak 14 eta denak bizi ziren etxean.

1936ko abuztuaren 13an Irundik sartu eta San Markotik Donostiara pasa zen gudarostea. Egun horretan San Markon egon ziren asturiarrak. Abuztuaren 14an, Zapiraindarrak kartzelan zeuden.

Espetxeko negarrak liburuaren pasarte batean, *Ataño* bertsolariak kontatzen



du nola sartu ziren ustekabeen Bordaxarrera eta zazpi anaiak eta aita, guztiak, preso eraman zituzten San Markora.

Bazkaltzen hasiak ziren “manos arriba” entzun zutenean baserriko atean. Pistola eskuan zuen lagun bat zen, baina ez zetorren bakarrik.

Mahai gaina zegoen bezala utzi eta aita besoak altxatuta aurrean zutela eta zazpi semeak atzetik, eraman egin zituzten.

Kanpora atera zirenean ohartu ziren nortzuk ziren, bi txapel gorri eta bi falangista. Bertan akabatu nahi zituen haietako falangista batek, baina azkenean San Markora eraman zituzten.

Egun hartan aita etxera bidali zuten. Hurrengo egunean herrira eraman zituzten semeak, eta haietako bi etxera bidali zituzten. Handik, Donostiako Ondarretara eraman zituzten. Bertan edukiko zituzten bi hilabetez Bordaxarreko lau seme, tartean *Ataño*, noiz kartzelatik atera eta hilko zituzten zain.

Gerra Kontseilua egin zieten lauri eta bi fusilatu eta beste biei bizi arteko kartzela zigorra ipini zieten.

Bi seme horiek Ondarretatik Iruñako San Cristobalgo kartzelara eraman zituzten. Han hiru urte baino gehiago eduki zituzten. Gose izugarria pairatu behar izan zuten.

Kartzela horretan izan zen ihesaldi handian parte hartu zuten Zapiraindarrak. Hala ere, ihesaldiak aurrerabiderik izango ez zuela susmatuta kartzelara itzuli ziren eta horregatik ez zituzten hil. Ihes egindakoak 800 baino gehiago izan ziren eta haietatik 230etik gora inguruetan hil zituzten.

Ondoren, Urduñara eraman zituzten, eta han zazpi hilabete egin zituzten.

Beste bi seme Bizkaira joan ziren frontera.

Beste seme bat kintak harrapatu eta soldadu ibili zen. Bertsotan aipatzen duen hamargarren kidea, beraz, emaztea zen.

Material osagarria: [“Len amar lagun giñan etxian” bertsoa](#)



44. MIGUEL IRASTORZA ETXEBERRIA

Herriko irakasle izan zen Biteri eskola publikoan. Bere ikasleetako bat, adibidez, Xabier Olaskoaga izan zen 1926an. Era berean, herriko kronista ere izan zen. Kapitanenea kaleko 24.ean bizi zen.

Gerra Zibila hasi zenean, garai hartako hainbat maisu-maistra herritik desagertu ziren, haien nondik norakoa ezagutzen ez zelarik.

Izan ere, maisu-maistrena izan zen frankismoak gehien zigortu zuen talde sozialetako bat. Frankisten aginduz Lehen Hezkuntzako Herri Kontseilua ezabatu zuten eta konfiantzazko lagunekin Batzorde berri bat eratu zuten.

Haren egitekoa zen, besteak beste, liburutegietatik irakurgai gaiztoak garbitzea eta maisu-maistra guztiei buruzko txostena egitea. Arreta berezia jarri behar zen nazionalistarik sar ez zedin. 1936ko urriaren 25ean egin zuten lehenengo bilera. Batzorde horrek, hezitzaileen gaineko txostenak egin zituen eta eskolak miatu zituen, gainera.

Hiru taldetan sailkatu ziren maisu-maistrak. 1.a: jokabide antipatriotikoengatik aurkako txostena zutenak osatu zuten; 2.a: jokabide dudazkoa, zehaztugabea edo haien daturik ez zegoena; 3.a: "Movimiento"aren jarraitzaile garbiak zirenak.

Egun haietan 13 maisu-maistra nazional eta boluntario zeuden herrian, horietatik 6 eskuin-eskuinekoak eta karlistak gehienak, eta beraz 3. taldean sailkatu zituzten; beste 4 irakasle 2. taldean sailkatu zituzten, tirabira asko izan baziren ere, azkenean ez zituzten kargugabetu; 3, berriz, 1. taldean sailkatu zituzten eta, beraz, kargugabetuak izan ziren. Haietako bat izan zen Miguel Irastorza, errepublikanoa izateaz eta "Frente popularra"ri laguntzeaz akusatu zuten. Atxilotu egin zuten eta ondoren fusilatu egin zuten Donostian. 1936ko abenduaren 16a zen eta 35 urte zituen.

Haren izena zeraman eskola bat izan zen urte askotan, gaur egun Udal Euskaltegia den eraikuntza, zehazki.

Herriko kale batek ere haren izena darama.

45. IRTEERA: LANTEGIEN ARRASTOAN

1. LA IBERICA, OLIBET: GAILETA FABRIKA

Lantegi hori gaur egun Olibet auzoa dagoen leku berean zegoen. Lantegiak eman zion, beraz, izena auzoari.

“La Iberica, Gran Manufactura Española de Bizcochos y Galletas Olibet SA”, hori zen bere benetako izena, 1886an eraiki zuten Ugarritza auzoan. Enpresa horrek, ordurako, bazituen beste lantegi batzuk Parisen, Bordelen eta Lyonen. Lau lantegi horietan, Olibet elkarteak 20.000 bizkotxo eta galleta ekoizten zituen egunero.

XX. mendearen hasieran, herriko industria garrantzitsuenetakoen artean zegoen. 1903an, Papelera, *Fabrika Handia* eta Olibeten artean 1.0

Lantegia handituz joan zen: 1903an 89 langile zituen eta 1915ean 154 zituen.

Garai hartan, ohitura bilakatu zen Donostiarrentzat eta han izaten ziren udatiarrentzat uda arratsaldetan herrira tranbiaz etorri, patata soufflé ezagunak jan, itzalean txokolatea hartu, lasai giroan hizketalditxoak izan, Olibet galleta zorro pare bat erosi eta tranbiaz atzera Donostiara itzultzea.

Lantegia galletak eta bizkotxoak ekoizten ari zenean, haien usain gozoa zabaltzen zen herrian.

Geroago, herritar askok erosten zituzten paperezko zorroetan puskatuta edo itxuroso irten ez ziren galletak erdi prezioan.

Lantegi horretatik eta galleta haien ekoizpenetik datorkigu herritarroi *gaileroak* goitizena.

70eko hamarkada arte aritu zen lanean. Hamarkada hartan bertan, etorkinen oldar izugarriari aurre egiteko, gaur ezagutzen ditugun zementuzko dorre tzarrak eraiki zituzten.

2. LA PAPELERA VASCO-BELGA, PAPELERA: PAPERERA

Lantegi hau, berriz, gaur egun Papresa dagoen lekuan bertan zegoen. Hala ere, hasiera hartan, gaur ezagutzen duguna baino txikiagoa zen.



1890ean sortu zen “La Papelera Vasco-Belga” izenarekin. 1912an, eraiki zuten hormigoizko eraikina oso miretsia izan zen garai hartan.

Garrantzi handiko lantegia izan da betidanik, eta herriko ekonomian pisu handia izan du. Herritar askok lan egiten zuten bertan.

1903an 175 langile izatetik, 1915ean 286 izatera iritsi zen; 1981ean, berriz, 500 langile zituen. 1994an, ordea, langileak 284 ziren.

1901ean 3.900 tona paper ekoiztu zituen, eta 1913an 12.500 tona inguru ekoiztu zituen

Ekoizpen gehiegizkoak, besteak beste, 1920an eta 1921ean krisia eragin zuen Europan. Ehungintza eta papergintza izan ziren kaltetuenak. Papelerak, esaterako, asteen zenbait egunez gelditzen zituen bere lantegiak eta horrek langileen diru-sarrerak asko gutxitzea ekarri zuen. Era berean, langabezia handitu zen, era berean, eta horrek ahuldu egin zituen langileen eskabideak; izan ere, langileak aski zuten beren lanpostuei eustearekin. Krisialdia laster amaitu bazen ere ohiko lan-erritmora itzulita, lanpostuen ezegonkortasunak eta langileen erosmen ahalmenak berdin jarraitu zuten.

Pizgarri bikaina izan zen hori industriagintza guztia sendotzeko. Urte gutxiren buruan prezio eta etekinak laukoiztu zituen. Papelerak, esaterako, lantegi berria inauguratu zuen, Manta fabrika berri eta moderna, gaur egun Gernika plaza dagoen lekuan.

1969an “El Elefante” komuneko papera egiten zuelako egin zen famatu. Garai hartan, komuneko paper bakarra zen.

Urte askotan ibaia zikindu zuen eta haren kiratsa zabaltzen zen herri guztian.

Urteen joanean Papelerak bere instalazioak handitu egin ditu. Gaur egun, paper orea eta papera egiten ditu, bereziki: telefono gida, “listina”, egiteko papera, besteak beste.

3. VICTORIO LUZURIAGA

Lantegi hori, lehenago “Fundición de Aceros Arrieta” izan zen. Geroagoa, berriz, “Fundición de Aceros Orueta” bihurtu zen. Garaiko lantegi handiak hornitzeko sortu zen, beste hainbat lantegi txiki eta tailerren antzera.



Garai hartan, altzairuzko barrak egiten zituzten eta moldatutako piezak galdatzen zituzten.

Herrian baziren beste galdategi batzuk, “Fundiciones Marqueze” esaterako; bertan, Kontxako baranda famatua egin zuten.

Ondoren, joan den mendeko 50eko hamarkadan, Victorio Luzuriagak erosi zuen eta izen hori bera ipini zion lantegiari: gaur Ertzaintza kuartela dagoen lekuan zegoen.

Lantegi horretan, burdin minerala urtu eta zepa eta burdina bereizten zuten labeetan. Ondoren, burdinarekin xaflak egiten zituzten, burdina hainbat modutan erabili ahal izateko.

1975ean Victorio Luzuriaga S.A.k 69 langile zituen.

4. SOCIEDAD DE TEJIDOS DE LINO, FABRIKA HANDIA: LIHOZKO OIHALAK

Lantegiaren izena “Sociedad de Tejidos de Lino” zen arren *Fabrika Handia* esaten zioten herrian. 1845ean sortu zen, eta herriko lehen lantegi modernoa izan zela esan genezake. Lantegiaren erditik Fanderiatik Beingoerrotaraino zihoan ubidea igarotzen zen. Gaur egun, han, Lehendakari Agirre plaza dago. *Fabrika Handian* ehunak eta oihalak egiten zituzten. Oso famatuak ziren bertako harizko maindireak.

XX. mendearen hasieran, herriko industria garrantzitsuenetakoen artean zegoen. 1903an, Papelera, *Fabrika Handia* eta Olibeten artean 1.000 langile zituzten. *Fabrika Handian*, zehazki, 246 langile aritzen ziren: 181 gizon eta 65 emakume.

Herriko ekonomiaz gain Gipuzkoako ekonomian ere garrantzia handia izan zuen lantegi horrek. Hain zuzen, Gipuzkoan sortutako lehenengo Elkarte Anonimoa izan zen eta herritar asko aritu ziren lanean bertan 130 urtez.

Hasieran oihalak eskuz egiten zituzten, horretarako lantegiak 200 ehundegi zituelarik. 1850ean 519.498 metro oihal ekoiztu zituzten. 1861ean, berriz, 1.340.640 metro oihal ekoiztu zituzten herrian lan horretan ari ziren lau lantegietako 900 langileek. Urte oparoenak izan ziren.

Garai zailak iritsi zitzaizkien, ordea, eta mekanizaziorantz jo behar izan zuten,

modernizatu ezean lantegiek ixteko arrisku handia zuten-eta.

1920an lantegiko emakume langileek bi hilabeteko greba gogorra egin zuten lan baldintza hobek eskatuz eta kaleratua izan zen lankide baten alde.

Jende ezagun ugari lan egin zuen *Fabrika Handian*. Haien artean, *Xenpelar* bertsolaria, haren arreba Maria Luisa eta baita azkenaren alaba eta lehenaren iloba zen Joxepa Antoni Aranbarrik ere. Esaten dutenez, *Xenpelar* anai-arrebak elkarri bertsotan aritzen ziren lanean ari ziren bitartean, inguruan zituztenen gozamenerako.

Besteen artean, Espainiako erreginaren armadarako kapak eta janzkiak ekoiztu zituzten. Herriko garraiolari baten idi pareak eramaten zituen Pasaiaiko porturaino, artean garai hartan kamioirik ez zen eta.

Fanderiatik zetorren eta lantegia zeharkatzen zuen ubidean bertan garbitzen zituzten lihozko oiha eta maindireak, ur haiek oso garbiak baitziren.

Ondoren, uretan garbitutako oiha langileek gurdietan eramaten zituzten Fanderiako zelaietan zabaldu eta eguzkitan zuritzeko. Horregatik, urte askotan ohikoa izan zen Fanderiako zelaiak oiha zuriz beteta ikustea.

1975ean itxi zituzten lantegiko ateak, industrializazioaren krisialdiak eraginda.

Gaur egun, lantegi handi hartaz geratzen den aztarna bakarra, Santa Klara kaleko 24. zenbakian, etxea inguratzen duen harrizko horma txiki batean txertatuta dagoen mugarria da. Lantegiaren mugak zeintzuk ziren ezartzeko jarri zituztenetako bat da, oraindik zutik dagoena. Harriak, S, T, L hizkiak ditu, "Sociedad Tejidos de Lino" adierazi nahi dute, hain zuzen.

Azkenik, Udalak 1982an erabaki zuen lantegia eraistea.

5. G. ECHEVERRIA CIA SA, PEKIN: TORLOJUAK

Lantegi honek, bere hastapenetan, "Fabrica Electrotecnica Euzkaria" zuen izena, eta 1924an sortu zen. Bere azken urteetan "Gecotor" izenez ezagutzen zen. Hasieran, 70 lagunek lan egiten zuten bertan. Hala ere, Pekin izenaz ezaguna zen herrian, Pekin erreka-ondoan eraiki baitzen.

Lehenik elektrotekniako tresnak egiten zituzten, eta geroago torlojuak egiten



hasi ziren.

1981ean, lantegiak 398 langile zituen. Urte batzuk geroago, 1994an, hain juxtu, 119 zituen.

Urteekin, herriko erdialdetik Zamalbidera zihoan bidearen bi aldeetara eraiki zen lantegia. Alde batetik bestera igarotzeko, errepidearen gainean zubi moduko bat zegoen.

Lantegia itxi zutenean hainbat erabilera izan zituen. Esaterako, joan den mendearen 90eko hamarkadan bertan egon zen herriko gaztetxea.

Udaltzainek ere han izan zuten beren egoitza gaur egun dauden Masti-Loidi poligonora joan aurretik.

Duela urte batzuk, haren lekuan, etxeak eraiki zituzten.

6. FABRIL LANERA: ARTILEA

Lantegi horren izena “Fabril Lanera” zen eta 1889an sortu zen Pekingo errota zaharraren gainean. Lanera artile lantegia zen.

Lantegi horrek ekoizten zuen produktu nagusia “Baionako txalekoa” izenekoa zen. Artilea gordinik jaso eta produktua ekoiztu bitarteko eskulangintza prozesua osoa bertan egiten zen.

1901ean, 66 emakumek eta 55 gizonek lan egiten zuten lantegi horretan.

1920an, bi hilabeteko greba luze eta gogorra egin zuten lan baldintza hobeto eta kaleratu zuten emakume lankide baten alde.

Lantegiak bazuen artileei kolorea emateko tindategia. Han, likido pozoitsuekin lan egiten zuten. Horregatik, uholdeak izan zirenean, herritarrek errespetuz begiratzen zioten tindategiari, urek hango likido pozoitsuak herrian barrena sakabanatuko zituzten beldurrez.

Jende ezagunak lan egin zuen lantegian, Juan Zabaleta bertsolariak, esaterako. Gazterik hil zen, 1950ean, lantegian erabilitako tinta toxikoek barrunbeak erreta, seguruenik.

Lantegia egon zen lekuan etxebizitzak eraiki dituzte. Haren oroigarri

adreiluzko tximinia ikusgarria soilik geratzen delarik.

7. LA ESMALTERIA GUIPUZCOANA: ESMALTEZTUTAKO ONTZIAK

Lantegi honek “La Esmalteria Guipuzcoana” zuen izena eta 1925ean sortu zen. Esmalterian, esmalteztatutako ontziak egiten zituzten. Langileen artean gehiengoa emakumeak ziren: 70 emakumezko eta 30 gizonzko baitzeuden. 1975ean, berriz, 66 langile ari ziren oraindik lanean.

Gaur egun, haren lekuan Esmalteria plaza izenez ezaguna den plaza eta etxebizitzak daude.

Lantegia handitu behar izan zuten 1930ean, eta egun Reina aretoa dagoen lekutik hurbil zegoen Pekingo garbilekua bota zuten horretarako.

Joan den mendeko 80ko hamarkadan oraindik lanean ari zen lantegia,

Urtero, lantegian aritutako langileek bazkaria egiten dute. Lehen urtean bazkarira joan ziren guztiak emakumeak izan ziren, 100 lagunetik gora. Garaiko kronikek diotenez, ez zuten nahi izan gizonik edo senarririk etor zedin. Gizonak ez etortzearen alde gehien saiatu zirenak, hain zuzen, ezkonduetako emakumeak izan ziren.

Maria Lezo kaleko alde oso bat hartzen zuen lantegiaren aurrealdeak. Lantegi hori, 1994an eraitsi zuten. Ondoren, zenbait urtez, aparkalekua izan zen eremu hori.

Azkenik, 115 etxebizitza eraiki zituzten, eta Koldo Mitxelena izena eman zitzaion erdigunean egin zuten plazari.

Lantegian egiten zuten lanaz eta langileek zituzten lan baldintzaz gehiago jakin nahi baduzu entzun Ahotsak.com-en Rufino Arbelaitz Sarasolak emandako azalpenak.

Soldata eskasa: <http://www.ahotsak.com/oiartzun/pasarteak/oia-039-004/>

Esmalterian enkargatu: <http://www.ahotsak.com/oiartzun/pasarteak/oia-039-005/>

Errenteriako esmalteria: <http://www.ahotsak.com/oiartzun/pasarteak/oia-039-008/>

Lantegiko errazionamendua:

<http://www.ahotsak.com/oiartzun/pasarteak/oia-039-010/>

Lan arriskuak: <http://www.ahotsak.com/oiartzun/pasarteak/oia-039-011/>

8. PAISA: PLASTIKOZKO PIEZAK

Paisa lantegia 1951ko amaieran sortu zen. Autoentzako plastikozko piezak egiten zituzten. Lantegia 1975 arte aritu zen lanean.

1981ean, Oreretako Hirigintza Koordinakundeak eginiko lan mardulari esker, Udalak erabakia hartu zuen Paisako orubea plaza bat egiteko. Horri esker, gaur egun bertan dago Musika plaza.

Lantegiak bere ekoizpenean amiantoa erabili zuen. Horrek egin zuen ezaguna. Izan ere, bertan aritutako hainbat langile amiantoaren eraginez garatutako minbiziaren ondorioz hil baitira. Paisan ez ziren, ordea, langileak soilik kutsatu. Kalera ematen zuen haizagailua zuen lantegiko hautsak eta zikinkeriak kanpora ateratzeko. Haiekin batera amiantoa ere barreiatu zuen inguruan. Lantegiaren aurrez aurre bizi zen emakume bat ere hil zen, kutsadura horren ondorioz. Beren semeek gai horren gaineko dokumentala egin zuten 2010ean: *Musika plaza: amiantoaren istorioak* izenekoa.

9. NIESSEN SA: TRESNA ELEKTRIKO TXIKIAK

Niessen lantegia Guillermo Niessen alemaniarrek sortu zuen XIX. mendearen bigarren erdian. Niessenen tresna elektriko txikiak egiten zituzten.

Niesseneko orubeak, beste hainbat lantegitako orubeen gisan, herriko gune onenetakoa hartzen zuen.

Gaur egun, orube horretan, Niessen merkataritza-gunea, Niessen Zinemak aretoa, Xenpelar Kulturgunea, Udal azoka eta Xabier Olaskoagari eskainitako plaza eraiki dira.

Inguruak izan duen iragan industrialaren lekuko mutu, plazan eraiki zuten adreiluzko tximinia gorria gelditu da.

Hura, ordea, ez da Niessen lantegiak zuen jatorrizko tximinia. Izan ere, hura

2004an eraitsi zuten. Egun plazan ikus dezakegunak sekula ez du kerik jaurti, apaingarri gisa eraikia baita.

Niesseneko orubearen azpitik Lanternetako errekaen urak igarotzen dira.

10. MANUFACTURAS DEL YUTE: ALPARGATA ZOLAK.

Lantegi honen izena, “Sociedad de Manufacturas del Yute de San Sebastian” zen. Niessen lantegiaren aldamenean zegoen, Vicente Elizegi kalea dagoen lekuan. Gaur egun, Niessen Kulturgunearen zati bat dago bertan.

Lantegi honetan, jutea txirikordatu eta alpargatentzako zolak egiten zituzten.

Lantegi hori 1900ean zabaldu zuten. Urte batzuk geroago, Kataluniako “Caral, Perez y Cía”k erosi eta modernizatu zuen.

Bi gertaerarengatik izan da, batez ere, ezaguna lantegi hori.

Alde batetik, 1919an, bertako emakume langileek greba deitu zuten. Istiluak izan ziren eta ordena publikoak etorri behar izan zuen.

1942an, berriz, Gerra Zibila amaitu berria zela, beste lan batzuen artean Oiartzun ibaia desbideratu zuten Langile Batailoietakoko kideak, “trabajadoreak”, han izan zituzten bizitzen. Gainerako “trabajadoreek” pairatu zuten gisan, Juteko lantegian izan zituzten lagunek oso bizi-baldintza gogorrei aurre egin behar izan zieten. Hantxe sortu zen, urte hartan, hainbat langile kutsatu zituen tifusa.

JARDUERA: Liburuxkan lantegi horien argazkiak aurkituko dituzue herriko mapan kokaturik. Hemen aipatu ditugun lantegiak baino gehiago izan ziren, ordea, herrian. Nahi izanez gero, ikasleei eska diezaiekegu beste lantegi batzuen berri biltzea eta guk emandako mapa osatzea. Taldeka egin dezakete lan hori eta aurkitutako lantegiaren argazkiren bat eskuratuz gero, mapan itsas dezakete.

46. KONTAKIZUNAK

JAIZKIBELGO OBUSA

Jaizkibel mendian, 1972ko apirilaren 1ean istripu larri bat gertatu zen. Gerra Zibilaren ondoren, Espainiako armadak Jaizkibel mendiaren eremu handi bat esparru militarra izendatu zuen. Eremu hura itxi eta han sartzea debekatu zuen. Gaur egun, askoz txikiago bada ere, oraindik ere bada han esparru militarra.

Urte luze haietan, armadak eta garai hartan derrigorrezkoa zen soldaduska egiten ari ziren soldaduek sarri maniobrak eta praktikak egiten zituzten bertan, batik bat joan den mendeko 70eko hamarkadan.

1972ko Aste Santu hartan, apirilaren 1ean, herriko 12 eta 16 urte arteko hamar gaztetxo Jaizkibelera joan ziren jolasera. Antza, bertan, obus granada bat aurkitu zuten garai hartan “tiro eremu” gisa mugatutako gunetik bi kilometrora eta harekin jolasean hasi zirela eztanda egin zuen.

Ondorioz, bi mutil hil egin ziren eta hirugarren bat itsu geratu zen. Gainerako lagunek zauri larriak izan zituzten: Iñaki Elo segi han bertan hil zen, eta ordu gutxira hil zen Juan Etxeberria laguna. Itsu geratu zena Jose Manuel Duran izan zen eta zauritutako gainerakoak: Joaquin Bastarrika, Fernando Deesa, Agustin Maritxalar, Ramon Barreiro, Saturnino Babon, Jose Maria Delgado eta Francisco Lasa izan ziren.

Jazotakoak samin handia eragin zuen herrian. Urte ilun haietan gertatzen zen bezala, gertaera horiek ezkutatu egin ziren. Horregatik, oso zaila da gertakizun haren arrastorik aurkitzea.

47. SALBATORE ERMITA

Papeleraren atzean eta herriko saihebiderearen beste aldean dagoen kasko batean omen zegoen ermita, Juanita-enea etxea dagoen ondoan, Lizantzi baserritik gertu, ur-biltegiaren ondoan. Done Jakue bideko erromesek hortik barrena omen zuten bidea: Irundik Lezora, handik Herrerara txalupaz, eta hurrena Donostiara joaten omen ziren. Ermita txikia zen, baina oso ezaguna omen zen Igokunde egunean han egiten zen erromeria.



Oiartzungo lurretan egon arren, gure herritik gertuago zegoenez, gure herrikideek joera handia omen zuten erromeria hartara joateko. Garai hartan, festa politak egiten omen ziren ermita eta herriaren artean zegoen Zumardian, gaur papeleran hainbat eraikuntza dagoen tokian.

Karlistadetan istilu handiak izan omen ziren ermitaren inguruan. Haietako batean, ermitak su hartu eta hondatuta gelditu omen zen. Erromeriak aurrera jarraitu zuen, hala ere, ondoko urteetan. Herritarrek ermita beren kontura berritu nahi izan zuten, baina oiartzuarrek ez zuten nahi izan. Oiartzungo bikario zaharrak hala esan omen zuen: “Gazteek ez dute hor pikardia besterik ikasiko”.

Berritu gabe geratu zen. Pena handia hartu omen zuen jende zaharrak. Bere hartan egon ziren pareta zaharrak urte askoan.

Azkenean, harri haiek baliatuz etxe berri bat egin omen zuten gure udalerrri parean. Salvatore izena jarri zioten etxeari. Ermita horretan gertatu zen *Xenpelarrek* ikusi eta ironia handiz 16 bertsoan kontatzen diguna 1865ean jarri zituen bertsoan.

Bertso-paperetan zabaldu zituen *Xenpelarrek* bertso horiek ere, eta aski ezagunak ziren herriko zaharren artean. Umorez abesten zituzten, gainera.

Material osagarria: [“Milla zortzireun irutan ogei” bertsoa](#)

48. PARROKIKO BEIRATEGIAK

Parrokiak ez du beti izan gaur egun duen itxura. Lehen, kanpandorrea baxuagoa zen eta beste itxura batekoa, Lezokoaren eta Oiartzungoaren tankerakoa. Gaur egun ezagutzen duguna, 1897an eraiki zuten. Beirategiak ere, geroagokoak dira.

Beirateriak, argi gehiago sartzeko jarri nahi zituzten, horregatik haien hondoa kolorerik gabekoa da, argia sar dadin. Izan ere, eliza nahikoa iluna zen. Lehen Mundu Gerra hasi zenerako leihateak, edo zuloak irekita zeuden. Municheko ZETTLER etxeari eskatu zizkieten, eta Amsterdam barrena ekartzekoak ziren. Baina, gerra zela eta ez zela ez ziren Pasaiako portura iritsi.



Beirateak galdu zirela pentsatuta, zur zatiekin estali zituzten baoak eta horrelaxe egon ziren lau urtez.

Mundu Gerra amaitu zenean, parroko erretoreak, azkenean, Amsterdameko portuan aurkitu zituen beirategien kaxak ukitu gabe, bere horretan. Beira guztiak, beraz, osorik zeuden.

Goiz batean, erretoreak, misterio handiz, ohiko tertuliakideei biltzeko eskatu zien, betiko lekuan. Izugarrizko ezustekoa eman zien, Antonen idi parea pasatzen ikusi zuten kaxa pila handia zeramatela. Kaxa haietan, bi egun lehenago Pasaiako portura iritsi ziren elizako beirategiak zeuden. Apaizak nahiago izan zuen ikuskizun hura eskaini aurretik inori ezer ez esatea.

49. INDUSTRIAREN GARAIAREN AMAIERA

XIX. mendearen amaieratik XX. mendeko 80ko hamarkada arte, gure herriak industrian ziharduen herri-gunea zuen. Niessen, Papelera, Real Compañía Asturiana de Minas, Esmalteria, Fabril Lanera, La Ibérica de galletas Olibet eta antzeko lantegi ertain eta handiek beren instalazioak herri erdian zituzten, zonalde lauan, ondoen komunikaturik eta eraikitzeko errazena ziren orubeetan.

Lantegi horien inguruan, horiek hornitzeko eta zerbitzatzeko hainbat lantegi txiki eta ertain zeuden. Herriko hirigintza osoa, beraz, industrialde baten antzekoa zen.

Lehen esan bezala, garapen industrial hori, XIX. mendeko bigarren erdialdean ernatu zen, lantegi nagusienak sortu zirenean. Hori guztia izango zen geroago *Manchester txikia* izenez ezagutu zenaren hazia.

Garai batean herri erdian, etxeetatik gertu, zeuden lantegiak.

Zer geratu da, ordea, Manchester txikiaren garai zail baina emankor hartatik? Oso gutxi, ia-ia ezabaturik daude gure historia hain hurbileko horren aztarnak.

Egun, Papelera besterik ez dago erdigunean, baina hainbat lekuren izenek industria ondare hura gogorarazten dute: Lanera, Olibet, Fanderia, eta beste ezagunak dira oso. Eta baita 1845en eraiki zuten Lino ere.



Gaur egungo lantegiak, berriz, Txirrita-Maleo, Egiburuberri eta Masti-Loidi inguruetan kokatzen dira, industrialdeetan.

Fanderia da urteetan zehar tokiek izan duten garapenaren adibide argi bat.

Paraje hartan kokatu zen lehenik *Errenteria*, errentak kobratzen zituen etxea. Hori da herriaren egungo izen ofizialaren jatorria.

Ondoren, urteen joanean, hainbat industria kokatu ziren bertan: burdinola, errota, pentsu fabrika eta abar.

Hainbeste interes arkeologiko, etnografiko eta naturala zuen zonaldea gaur egun auzo bilakatu da. Izandakoaren lekuko, Fanderiako errotaren behealdea geratu da, soilik.

Arditurriko mea ekartzen zuen trenak herria zeharkatzen zuen Oiartzundik Pasaia bere bidean. Tren zahar hartaz, Pontikako Arditurriko bidea izeneko zatia geratzen da, soilik.

Urte haietan izan zen burgesia kapitalista haren arrastoak, berriz, gaur egun lorategi bihurtua dagoen Gaztelutxoko hilerri zaharrean daude. Lehen lantegiak sortu zituzten familia haien hilobi dotoreak ikusgai daude oraindik han.

Joan den mendeko 80ko hamarkadan hasi ziren herri-gunean zeuden lantegiak eraisten.

1982an, adibidez, *Fabrika Handiko* eta Manta fabrikako eraikinak eraitsi zituzten. Urte batzuk geroago, 1988an, Alcoholera lantegiko eraikinak eraitsi zituzten. 1994an, Esmalteria lantegia eraitsi zuten.

Herri industrialia izan zen hura, gaur egun merkataritzan eta, batez ere, zerbitzuetan diharduen herria da.

Dauden lantegiek langile kopuru gutxi dituzte.

Jarduera aldaketa horrek ere aldaketak eragin ditu bizimoduan. Gaur egun, jada, ez da sirena hotsik entzuten lantegietako sarrera eta irteera orduak adierazteko. Ordutegi haren inguruan antolatzen zen, gainera, neurri handi batean herriko bizitza: eskolako ordutegia, jatorduak eta abar.

JARDUERA: Koadernoan hainbat argazki dituzue. Lehena, Papelera agertzen den herriko panoramika bat da. Izan ere, gaur egun lantegi hori da herrian geratzen den bakarra.

Beste batean, gaur egun lorategi bilakatutako Gaztelutxoko hilerri zaharra duzue. Bertan agertzen diren hilobiak, herriko lehen lantegiak zabaldu zituzten familienak dira.

Beste argazkian Arditurriko meategiko trenbidearen zatia Pontika auzoan, egun bidegorri bilakatua.

Lehenik eta behin argazkiak behatzea proposatuko dizuegu. Aurrekoetan bezala, ikasleek duten informazioa ahalik eta zabaldu jasotzen saiatuko gara. Ondoren proposatutako testua hobeto ulertzeko baliagarria izango zaie. Irakurri ondoren hor esandakoarekin ados dauden edo herria beste norabaiterantz garatzen ari ote den eztabaida dezakete.

“XX. mendeko 80ko hamarkada arte herri-gunea industrialde modukoa zen: etxeak, lantegi handiak, haiek zerbitzatzeko lantegi txikiak nahasten ziren.

Gaur egun Papelera soilik geratzen da herri-gunean. Gainerakoak, inguruko industrialdeetan pilatzen dira. Lantegiak egon ziren orubeek gorde dituzte haien izenak.

Lantegi haiek sortu zituzten familia haien oroigarri, lorategi bilakatuta den Gaztelutxoko hilerri zaharreko hilobi dotoreak geratzen dira.

Herriak garatzen jarraitzen du eta gaur egun zerbitzu herria da, batik bat”.

JARDUERA2: Aztertu ditugu lantegi batzuk lehen zer ziren eta zer diren gaur. Heldu den jardueran bati buruz sakontzea proposatuko dizuegu. Fanderia edo Arditurriko trena izan daitezke errazenak, informazioa eskuratzea nahikoa erraza baita.

Aukeratutakoaren inguruan ahal duten informazio gehiena biltzea eskatuko diegu, eta gero fitxa horretan historian zehar izan duen garapena idaztea, kronologikoki ordenatua, gaur egun arte. Era berean, lehen zena eta gaur egun dena adierazten duten argazkiak jartzea interesgarria litzateke.

Ondoren, erakusketa modukoa egin dezakegu edo batzuk aukeratu eta gelan aurkeztu. Horretarako, aukera bera egin duten ikasleak bil ditzakegu eta

bakoitzak bildu duena besteei aurkeztu eta denen artean taldeko fitxa osa dezakete gainerakoei aurkezteko.

Koadernoko 14. orrialdea

50. HIRIGINTZA

Hirigintzaren eta industrializazioaren artean lotura handia dago. Lantegiak agertu zirenean, hiriguneak etengabe hazi ziren.

Gure herrian izandako lehen industrializazioan, esaterako, asko handitu zen herria. 1840tik 1901era bitartean, esaterako, herri-guneko biztanle-kopurua 3,75 aldiz handiago zen: landan bizi zena, berriz, soilik 1,8 aldiz handitu zen.

Hirigintzak, kontzentrazio-gertakaria izateaz gain, bizitzeko moduen aldaketa ekarri zuen.

Gure herriak XIX. mendearen erdialdetik aurrera jasan zuen garapen industrialaren ondorioz behinenetako bat herri-guneko biztanleen hazkuntza azkarra izan zen. 1842-1871 urteen artean hazkundeak % 164koa izan zen eta 1871tik 1901 arte, berriz, % 277koa.

1845etik 1870era bitartean, biztanleen hazkundeak gorakada nabarmena izan zuen. Herriko azalerak, hala ere, ez zuen neurri bereko zabaltzea izan, biztanle berriak lehendik zeuden tokietan bizitzen jarri zirelako; hau da, harresitutako esparru zaharrean eta bertako zazpi kaleetan. Horrez gain, Santa Klara eta Madalenako errebalak ere aipatu behar dira, eta baita kale berri bakarra ere, Errepide izenekoa, gaurko Biteri kalea.

Ondorioz, biztanle-dentsitatea biderkatu eta herriko jendea pilatzen hasi zen. Herri-gunearen saturazioa zela eta, dentsitate handiak gertatu ziren. Lurzoru eraikigarria maximizatu zen, eta etxeak gero eta gehiago sakabanatu ziren: herriko esparruko baratze eta otalur guztietan eraiki zen; eta barruko etxeetan, lehen familia bakarrak hartzen zuen espazioa orain hainbat familiak okupatzen zuten.

Langile familiek gutxitan hartzen zuten etxe oso bat; oro har, beste familia batzuekin erdibanatu behar izaten zuten etxea.

Sarritan etheen beheko solairuetan eta sotoetan bizi behar zuten, goiko pisuak baino ilunagoak eta hezetsuagoak baziren ere. Kontuan hartu behar da industria aurreko garaian, etxabeetan ukuiluak eta biltegiak egon ohi zirela.

Industrializazioak lantokiaren eta bizitokiaren arteko zatiketa eragin zuen, etxea egontoki bezala finkatu zuen, eta lanarekin zerikusia zuten gelak desagerrarazi zituen: biltegiak, lanabesak, kortak eta abar.

Zenbait merkatariren eta eskulangileren etxeek soilik gorde zituzten horrelako gelak, saltoki bihurtu zirenak. Etxe horietan, beraz, ukuiluen tokian dendak jartzen hasi ziren eta horien kopuruak gora egin zuen; izan ere, langile familia askotan, emakumeek etxeko lanak ez ezik bestelako diru-sarrerara osagarriak ere bilatzen zituzten: joste-lanak, arropa-garbiketak eta abar.

Bizitokia eta lantokia banatu, etxea egontoki bihurtu eta azkenean etxearen pribatizazioa gertatu zen. Giro burgesean batik bat, pixkanaka, etxea tokirik kutunena bihurtu zen; kaleko jendearentzat itxita zegoen, familiakoentzako tokia zen soil-soilik.

Burgesia gora joan ahala, pribatutasuna sendotu zen Europa osoan. Baina horrek eragin gutxi izan zuen beheko klaseetan, proletarioek promiskuitate handian bizi behar baitzuten, etxean pilatuta beti.

Bien bitartean, nekazariak korronte horietatik kanpo jarraitzen zuten; beraz, haien etxea bizitokia eta lantokia zen; hau da, bertan zeuden bai gelak eta bai gainerakoak ere, esaterako ukuiluak, biltegiak edo uzta-lehortegiak.

Hirigintzak aurrera egin ahala, herri-guneko espazio eta zeregin kontzentrazioa gora joan zen. Jendearen pilatze hura inoiz ikusi gabekoa zen; baina, gainera, herri-guneko zerbitzuen zentralizazio-prozesua ere hasi zen. Izan ere, saltokiak eta kafetegiak, mota guztietako elkarteak, trenbidea, telegrafo-etxea, tranbia geltokia, hornidura merkatua eta abar herriko erdigunean jarri ziren. Noski, eragin-eremua udalerrri guztira hedatu zen, eta baita inguruko herrietara ere.

1926an behin betiko onarturik geratu zen Zabaltze Plana. Urte horretatik aurrera eraikiz joango ziren auzo berriak.

51. LANGILEEN ATZETIK

Langileekin edo haien atzetik beren familiak etorri ziren.

XX. mende hasieran, Etxeberrietako edo Ensantxeko auzoa eraiki zen, eta industrializazioaren lehen garaian etorritako langile batzuk bertan kokatu ziren.

Etxebizitzak, batez beste, kalitate txarrekoak izateaz gain, asko garestitu ziren. Eusko Ikaskuntzak 1920an aurkeztutako txosten baten arabera, 224 ziren etxejabeak eta 1.272 maizter zeuden familiak. Txosten horretan, gainera, bizi-kalitatea txarra zela adierazten da, garbitasun gutxi baitzegoen etxeetan eta kaleetan.

Horrek, biztanleriaren gehiegizko hazkundera ekarri zuen. Handitze prozesu horren gailurra 1975ean gertatu zen, 46.329 biztanle izatera heldu zelarik.

Biztanleriaren ugaltze horrek etxebizitza poligonoak eraikitzea ekarri zuen. Era kaotikoan sortu ziren.

Goizetik gauera auzo berriak sortu ziren, hiriztatu gabe, herri-gunearekin mugan zeuden landa eremuak txikituz, baserri, baratz eta abarren suntsipena ekarriz.

Joan den mendeko 50eko hamarkadan sortu zen gisa horretako lehen poligonoa, Alabergakoa, hain zuzen. Haren atzetik, 60ko hamarkadan, Iztieta, Gabierrota eta Galtzarabordakoak. Eta era nahasi eta antolatu gabean, hurrengo hamarkadan, Pontika, Olibet, Agustinak eta Kaputxinoetakoak.

JARDUERA1: Hirigintzari buruzko hainbat daturen gainean zuen ikasleekin hausnartzeko eskatu nahiko genizueke jarraian. Horretarako azalpen testu bat, datu-taula bat eta hainbat argazki eskainiko dizkizuegu.

“Jendearen pilatze hura inoiz ikusi gabekoa izan zen. 1977ko ikerketa baten arabera, 7 urtetan 13.387 etxebizitza egin ziren. Bat-batean auzo berriak sortzen ziren, hiriztatu gabe, herri-gunearekin mugan zeuden landa eremuak txikituz, baserrien, baratz eta abarren suntsipena ekarriz.

Zerbitzuak erdigunean jarri zituzten: saltokiak eta kafetegiak, era guztietako elkarteak, geltokiak, telegrafo eta posta etxea, hornidura azoka eta abar.

Kutsadura asko handitu zen. Bizimodua ez zen erraza bihurtu...

Urtea	Kaputxinoak	Agustinak	Beraun	Olibet	Pontika	Iztieta	Morrongileta	Beste batzuk	Guztira
1970	180	165	197	70			90	877	1.579
1971	220	30	398	224	326			57	1.255
1972	160	70	302						532
1973	104	140	395	70				86	795
1974	108	30	460			54		61	713
1975	164							297	461
Guztira	936	435	1752	364	326	54	90	1.378	5.335

JARDUERA2: Norberak hausnarketan sakontzeko eta bere errealitatearekin alderaketak egin ditzan, hainbat galdera proposatu ditugu:

- *Zein urtetan eraiki ziren etxebizitza gehien eta zenbat?*
- *Zein auzotan eraiki ziren etxebizitza gehien eta zenbat?*
- *Zenbat etxebizitza ditu bizi zaren eraikinak?*
- *5.335 etxebizitza eraiki ziren 6 urtetan. Bizi zaren bezalako zenbat erakin ote dira horiek?*
- *Zein zerbitzu daude zure auzoan?*
- *Zeintzuk gehiago beharko zenituzkete?*
- *Begiratu argazkiak. Zer uste duzu gertatu zela hirigintza arloan gure herrian?*

Koadernoko 15. orrialdea

52. BIZIKIDETZA KOLOKAN

Eraikuntza horiek guztiek asko eskatu zuten bizi-kalitatea eta horrek eragin zuzena izan zuen, baita ere, bizikidetzan.

Hainbesteko utzikeriaren eta baldintza eskas horien guztien aurrean bizilagunak mugitzen hasi ziren.

Gero eta protesta ozenagoak eta jendetsuagoak sortzen hasi ziren. XX. mendearen 70eko eta 80ko hamarkadetan ohikoak izan ziren herritarrek egindako manifestazioak. Herriko horma askok ere herritarrek jasaten zuten

eskasia salatzen zuten horma-irudi eta pintadak jasotzen zituzten.

53. OIARTZUN IBAIAREN KOLOREAK

Industrializazioak eta hirigintza eredu basati horrek naturan eta ekologian ere eragina izan zuten.

Herria zeharkatzen duen Oiartzun ibaia izan zen kaltetutako elementu nabarmenetako bat. Izan ere, lantegiek zuzenean jaurtitzen zituzten erabilitako likidoak, sortutako hondakinak eta abar ibaira edo zeharka, hartara ibairatzen ziren erreken bidez. Horiek guztiak, gainera, pozoitsuak izaten ziren gehienak.

Industria garapenak, beraz, hasieratik eragin zituen ingurumen arazoak. 1893an, Osasun Batzordeak eta Udalak “Papelera Vasco-Belga”ri, “Fabril Lanera”ri eta “La Margarita” distilategiari ohartarazi zien “zuen industrietatik datozen sustantzia kaltegarriekin Oiartzun ibaiko ura kutsa ez dezazuen”. Hurrengo urteetan ere ohartarazpen gehiago izan ziren.

Oiartzun ibaia hil egin zen. Gaur egun arrainak eta ahateak ikustea ohikoa den arren, urte haietan ez zegoen bizitzarik ibaian. Gainera, itsas behera zenean, batez ere, kiratsa jasangaitza zabaltzen zuen herrian.

Garai hartan, ibaiak kolore ilunak izaten zituen, eta ez zen sekula haren hondoa ikusten.

1983an “Oiartzungo Ibaiaren Lagunak” elkarteak 1.000 herritarren sinadurak aurkeztu zizkion Udalari. Ibaiaren egoera tamalgarriaren eta kutsaduraren aurrean protesta egin nahi zuten, eta egoera horri konponbidea jartzeko exijitu zioten udalari.

Lantegiek haien tximinietatik ere kutsadura zabaltzen zuten. Aldamenetako mendietatik begiratuta, ohikoa izaten zen herria ke artean ikustea.

Horiek ere, industrializazioak eta hirigintza eredu horrek ekarri zituen aldeak izan ziren.

Hirigintza alorrak eztabaida, desadostasun eta protesta handiak eragin zituen gure herrian. Izan ere, hainbeste jende eta baldintza haietan bizitzea ez zen batere erraza bihurtu. Beste aldetik, eztabaidetan beharrezkoa izaten da

argudioak ongi finkatzea eta argi izatea. Horretan guztian trebatzeko eztabaida antolatzea izango da gure hurrengo proposamena. Horretarako ikasleak binaka ipini ditzakegu. Gai bat ipini eta batek aldeko eta besteak kontrako iritzia defendatu beharko du. Horretarako, bere iritzia arrazoitu beharko ditu, bere argudioak zein diren ongi zehaztu ondoren. Bi argazki dituzue ariketa girotzeko lagungarriak izan daitezkeenak: batean, “pintada” bat agertzen da; bestean, berriz, Oiartzun ibaiak urte askotan izan zuen itxura degradatua. Bi horiek izan daitezke eztabaidak.

JARDUERA1: a. Auzo elkarteko kidea zara. Alkatearekin hitz egitera zoaz zure auzoko egoerari buruz. Etxeak neurri gabe eraiki dira auzoan, hiriztatzea oso txarra da eta horrek guztiak eragin zuzenak ditu auzokideen osasunean. Zuk badituzu ideia eta proposamen batzuk egoera hobetzeko. Pentsatu zure argudioak eta ongi prestatu zure diskurtsoa; izan ere, alkatea ez da zure auzoan bizi eta ez dirudi bere arduren lehentasunean zaudetenik.

b. Herri bateko alkatea zara. Zure herriko Auzo Elkarte bateko kidea duzu aurrean bere auzoko hiriztapenaz kexu.

Zuk beste gai batzuetan dituzu ipinirik lehentasunak. Gainera, udaletxearen ondoan, auzo horretatik urrun, parke eder bat egitea pentsatzen ari zara.

Ongi prestatu beharko dituzu zure argudioak, izan ere, auzotar hori oso trebea da bere arrazoiak azaltzen.

JARDUERA2: a. Herriko ekologista taldeko kidea zara. Herriko ibaia zikintzen ari den lantegiko nagusiarekin hitz egitera zoaz ibaiaren egoera txarrari eta kutsadurari buruz.

Oso kezkatuta zaudete, izan ere, ibaia geroz eta kutsatua dago. Zuek badituzue proposamenak egoera hobetzeko.

Hala ere, ongi antolatu beharko duzu zure diskurtsoa, izan ere, nagusia oso ohituta dago lantegiko langileekin tira-biran ibiltzen.

Horretarako, arretaz erabaki beharko duzu zure argudioak zein diren eta horien gainean antolatu beharko duzu zure diskurtsoa.

b. Lantegi bateko nagusia zara. Zure lantegiak herriko ibaia kutsatzen du eta herriko ekologista taldeko kide bat duzu aurrean, kexu.

Jakitun zara ibaia kutsatzen ari zaretela. Lantegia herriarentzat oso beharrezkoa dela pentsatzen duzu, ordea, eta ibaiaren kutsadurak ez zaitu asko kezkatzen, egia esateko.

Herritarrarekin eztabaidatu beharko duzu. Zure argudioak tentuz erabaki beharko dituzu, ez baita erraza izango hark esandakoei buelta ematea.

Koadernoko 15. orrialdea.

54. ETORKINEN ETORRERA

Industria aroaren hasieran, herriko lantegietan lan egiten zutenak, herriko jendeaz gain, Oiartzungoak, Lezokoak, Pasaiakoak, Aranokoak eta Goizuetakoak ziren.

Industria sendotzen zihoan heinean, ordea, jendarte eta kultura aldaketa hasi zen. Lehen lantegia zabaldu eta 30 urte geroago, biztanle kopurua bikoitza zen: 1842ko erroldan 1.651 biztanle agertzen ziren; 1870n, aldiz, 3.223. Sekulako hazkundera izan zen: kapitalismo aurreko egonkortasun demografikoa amaituta zegoen, beraz.

Industrializazio garaiaren aurretik, bertako jendeak herritik kanpora abiatu behar izaten zuen lan bila. Migrazio-isuriak kontrako norabidea hartu zuen, ordea, kanpoko jendea hasi zen herrira etortzen lanera.

Ordura arte nagusi izandako nekazaritzako eta abeltzaintzako parametroak (populazio okupatuari, produkzio bolumenari eta kapitala pilatzeari dagokionez) atzean geratu ziren laster, industria eta merkataritzak gaindituta.

1915ean 28 lantegi zeuden herrian eta 1.315 lagunek lan egiten zuten haietan. Migrazioa, beraz, handia zen.

1910eko udal-erroldari begiratuta ikus daiteke herriko biztanleen % 47,6 soilik zela bertan jaioa; biztanleriaren % 30 Gipuzkoako beste herri batzuetatik etorritakoa zen; % 10,3 beste euskal probintzietatik etorritakoa, Nafarroatik batez ere, % 6,6 lurralde horretatik etorritakoa baitzen; beste % 10,2 Espainiako estatuko probintzietatik, Gaztela Zaharretik batez ere; % 4,9 han sortua baitzen; gainerako % 1,8 atzeritarra zelarik.

Datu horiek ikusita bi ondorio atera daitezke: alde batetik, herriaren ekonomi jardunbide geroz eta indartsuagoa jende-erakargarri garrantzitsua zela; eta, bestetik, herriratutako en sorerlekuak ikusita, euskal jatorria zutenek gehiengo nabarmena zirela; erroldaren % 87,9 osatzen baitzuten. Horregatik, etorkinak ugari izateak ez zuen haustura larririk eragin lehengo ohitura eta usadioei dagokienez eta arazo handirik gabe bertakotu ahal izan ziren.

Ondoren etorri ziren urteetan ekonomiak goren maila erdietsi zuen, lanpostu eskaintza ugaria izan zen, eta horren isla da biztanleria ere etengabe ugaltu zela.

1930eko erroldan 1920koan baino 2.000 pertsona gehiago zeuden, guztira 8.973 biztanle, immigrazioak jarraitzen zuen seinale.

1929ko errolda datuek erakusten dutenez, gehitu egin zen biztanleriaren kopuru osoari dagokionez immigranteek zuten pisua.

1910ean Gipuzkoan jaiotakoak % 77,6 baziren eta Euskal Herrian jaiotakoak, berriz, % 87,9; 1929an gipuzkoarrak % 69 ziren eta % 81,18 euskaldunak.

Etorkin ez euskaldunen kopurua, pixkanaka baina etengabe, handitzen ari zen: 20 urtean % 12,2tik % 19,42ra igo zen. Immigrante horien presentzia nabarmenago zen ordurako.

Industrializazioa hasi eta mende bat geroago, XX. mendeko 50eko hamarkadan, industrializazioaren garapen izugarriak langile gehiagoren beharra sortu zuen. Langile horiek Gipuzkoatik, Nafarroatik eta Espainiako estatutik etorri ziren; Gaztela-Leondik, Galiziatik, Extremaduratik eta Andaluziatik, batez ere. Kualifikatu gabeko langile multzo horrek eskulan merkea eta esplotatzeko erraza suposatu zuen, etorkinak iristen zirenean bizi zuten behar eta estutasun egoera ekonomikoa zela-eta. Etorkin horiek gehienak nekazariak ziren, bakarrik aurkitzen ziren, kokatu gabe, etxebizitzarik gabe eta abar. Antzeko egoera bizi dute gaur egun ere Afrikatik, Hego Ameriketatik eta Europa Erdi eta Ekialdetik datozen pertsonak.

JARDUERA: Gaiari sarrera emateko azalpen testu bat duzue koadernoan. Testua irakurri eta zalantzak argitu ondoren, immigrazioaren eta etorkinen gaiari buruz dituzten ezagutzak eta ideiak bil ditzakegu.

Nahi izanez gero, etorkinei buruz komunikabideetan agertzen dena bildu eta eskolara ekartzeko eska diezaiekegu. Azterketa bat egin dezakegu ea etorkinak

zein motatako albisteekin lotzen dituzten eta abar.

“Gure herria ere emigrante herria izan da. Industrializazio aurretik herritar askok alde egin behar izan zuen lan bila. Gerra garaian, berriz, beste askok ihes egin behar izan zuten.

Langileen beharrak inguruko herrietatik erakarri zuen jendea. Gero, Nafarroatik etorri ziren asko.

Ondoren, eta trena baliatuz, Espainiako estatutik etorri ziren: Gaztela-Leondik, Galiziatik, Extremaduratik eta Andaluziatik.

Gehienak nekazariak ziren eta eskulan merke eta esplotatzeko erraza izan ziren. Haien bizitza ez zen erraza izan: etorkinek bizi-behar eta estutasun egoera-ekonomiko larriak pairatu zituzten”.

Koadernoko 16. orrialdea.

55. NOLA DAUDE BANATUTA ETORKINAK GURE HERRIAN?

Gure herrian bizi diren etorkinei buruz 2004an egindako ikerketa batean etorkinak non bizi ziren ikus daiteke. Azterketa horren arabera, herrian etorkin gehien bizi den lekua, Alde Zaharra da; Parrokia eta Udaletxe inguruko kaleak, hain zuzen. Kasu gehienetan erosotasun gutxiko eremu degradatuak dira, etxebizitza zahar eta zaindu gabeak, alegia.

Izan ere, herriko etxerik zaharrenak azken urteetan biztanlez hustuz joan dira, eta azken aldi honetan berriro bete dituzte Marokotik eta Afrika beltzetik datozen etorkinek.

Kale horietan jende gutxi bizi da, Herriko plazaren inguruan erroldatuak daudenak ez baitira 1.000 lagunera iristen. Beraz, nahiz eta etorri berriak asko ez izan azkar aldatu da kale horien izaera.

Kopuruari begira ez dira asko, bertako biztanleen % 4, baina haien banaketa irregularrak leku batzuetan portzentajea kontuan izanik, dezente izatera iritsi dira. Gehienbat hiru kaletan pilatzen dira, kale utzienetan: Eliza kalean, Santa Maria kalean eta Herriko plazan. Azken honetan, garai horretan %10 izatera iritsi zirelarik.

Eliza kaleak zuen etorkinen proportzio altuena: 82 biztanletan 12 atzerritarrak baitziren: % 14, 63.

Etorkinak pilatzen diren bigarren lekua Iztieta auzoa da. Bertan, meskita eta harategi islamiar bat daude.

Auzo horretako biztanleak aurreko zonaldekoak baino ugariagoak eta gazteagoak dira. Beraz, portzentajeaz ez, baina zenbaki absolutuetan atzerritar kopurua handiago da. Gainera, Hegoamerikar gehiago daude.

Diputazio plaza ingurua eta Donostia, Pasaia, Irun eta Hondarribia kaleak dira etorkin gehien bizi direnak, erroldatutakoen %3 izatera iritsi zirelarik.

Aipatu lekuez gain, etorkin taldeak dauden gainerako kale eta zonaldeak ez dira hain adierazgarriak. Horietan, ondorengoak aipatu ziren: erdialdeko Alfontso XI kalea aipa daiteke, atzerritarrak % 6 zirelarik ia; Beraun eta Ernio kaleak, biztanleen % 4 etorkinak zituztelarik eta Zentolen ingurua.

Era berean, lan horretan, etorkinik ez zeuden inguruak ere adierazi ziren. Kale asko ziren etorkin erroldaturik ez zituztenak. Baina, orokortuz, esan liteke auzorik berrienak direla estatuz kanpoko etorkin kopuru baxuenak dituztenak: Fanderia, Gabierrota, Beraun eta landa eremua: Zamalbide eta San Marko.

Estatuz kanpoko etorkinak ere oso gutxi ziren, gainera, Etxeberrietan, Olibeten eta Alabergan.

56. ETA ZEIN DA GURE HERRIKO ETORKINEN JATORRIA?

Udalak 2009ko abenduaren 31n egindako datu bilketaren arabera, hauexek dira Espainiako estatutik kanpoko etorkinen jatorrizko herrialdeak eta bakoitzetik herrian erroldatuta bizi den lagunen kopurua.

Jatorrizko herrialdea	biztanleak
Alemania	31
Aljeria	45
Ameriketako Estatu Batuak	10

Andorra	2
Angola	2
Argentina	77
Armenia	4
Australia	2
Austria	1
Belgika	4
Bielorrusia	4
Boli Kosta	1
Bolivia	64
Brasil	94
Britainia Handia	13
Bulgaria	31
Burkina Faso	2
Cabo Verde	1
Dominikar Errepublika	34
Ekvador	189
Ekuatore Ginea	67
El Salvador	5
Errumania	168
Errusia	23
Eslovakia	5
Filipinak	4
Finlandia	1
Frantzia	157
Georgia	2
Ghana	9
Ginea	1
Ginea Bissau	1
Grezia	1
Guatemala	1
Hegoafrika	2
Herbehereak	2
Honduras	41
India	8
Irlanda	3
Italia	34
Kamerun	10
Kazakhstan	1
Kolonia	184
Kongo	2

Kuba	85
Libano	3
Maroko	312
Mauritania	4
Mexiko	20
Moldavia	2
Mongolia	6
Nepal	1
Nigeria	31
Nikaragua	57
Pakistan	11
Palestina	1
Panama	1
Paraguai	12
Peru	61
Polonia	20
Portugal	295
Saudi Arabia	1
Senegal	9
Sierra Leona	1
Suedia	4
Suitza	11
Txekia	1
Txile	17
Txina	85
Ukraina	99
Uruguai	6
Venezuela	45
Vietnam	1

Urtez urte, berriz, hauxe izan da Espainiako estatutik kanpoko etorkin kopuruaren bilakaera (erroldatutakoen datuak dira):

Urtea	Biztanle etorkinak	Biztanleak guztira	Etorkinak %
2003	655	38.134	1,72
2004	773	37.872	2,04
2005	943	37.884	2,49
2006	1.613	38.416	4,20
2007	2.008	38.763	5,18

2008	2.288	38.921	5,88
2009	2.545	39.145	6,50

JARDUERA1: Gure herrian bizi diren etorkinei buruzko datuak eta zein dituzten jatorriko lekuak ezagutu ondoren, datu horiekin hainbat ariketa egitea proposatu nahiko genizueke.

Urtez urte herrian bizi ziren atzerritarren koadroa duzue hor. Ehunekoan zutabea bete gabe dago. Ikasleei eskatuko diegu atzerritarren kopurua ehunekotan emateko.

Osatu atzerritarrak zenbat diren ehunekotan.

JARDUERA2: Aurreko taulan emandako datuak grafikoan islatzeko eskatuko diegu ariketa horretan.

Osatu grafikoa goiko datuekin ea nolako marra ateratzen den.

JARDUERA3: Datuetan ikusi dugu zenbat diren eta nongoak diren herrian bizi diren etorkinak.

Jarraian, antzeko ikerketa egiteko proposatu nahi diegu. Oraingo honetan, ordea, aztertzeko unibertsoa haien familia izango da: hiru belaunaldi, hain zuzen.

Zutabeak osatzeko adierazleak, aztertu behar dituzten aldeak, alegia, ikasleek beraiek aukera ditzakete.

Ondoren, nahi baduzue, aldameneko gelako datuekin edo beste ikastetxeren bateko datuekin aldera ditzakezue.

Herritarren jatorriari buruz egin duten datu bilketaren antzekoa egin dezakezue zuek ere. Hiru belaunaldi azter dezakezue. Zutabeak hutsik dituzu nahi dituzun adierazleak jartzeko.

JARDUERA4: Ikaslekideak non jaiotakoak diren jasotzeko eskatuko diegu ikasleei.

Era berean, datu bilketa egiterakoan, eska diezaiekegu galdetzeko zein den elkarrizketatuaren jaioterria, herrian jaio ez den kasuan.

Behar bada, batez ere bi aurreko belaunaldietan, lagun asko Donostian jaiotakoak bezala agertuko zaizkie, nahiz eta herrikoak izan. Hori zergatik ote den horrela pentsatzeko eta hipotesiak egiteko eskatuko diegu.

Non jaiotakoak zarete zuek?

Koadernoko 16. orrialdea

57. BESTE KULTURA BATZUK

Etorkinek beren kultura ekarri zuten eta beren ohiturak dituzte. Lagun asko, beren sorterriko beste hainbat lagunekin elkartu eta bereari eusteko elkarteak sortu dituzte.

Urtean zehar hainbat ekitaldi egiten dituzte. Baliteke zuen ikasleren baten etxeoak elkarte horietako baten kide izatea.

Elkarte horietako norbait gonbidatu dezakegu gelara zer lan eta zergatik egiten duten konta diezagun.

JARDUERA1: Beste herrietatik etorri diren lagunak badituzte beren kultura eta ohiturak. Gurekin batera, kolore gehiago jarri dizkiote gure herriari, eta horrek aberasten gaitu.

Jatorri bera duten jendeak bildu eta elkarteak sortu dituzte. Jaiak ere egiten dituzte.

Ba al dakizu zein elkarte ditugun herrian eta nongo lagunak biltzen dituen?

JARDUERA2: Imajina ezazue beste herrialde batera joan behar duzula bizitzera. Nola uste duzu sentituko zinatekeela bizileku berri horretan?

JARDUERA3: Akaso, topatuko zenuke norbait herri berria erakutsi eta hangotarrak nolakoak diren eta zer egiten duten adieraziko lizukeena. Eta zuk, zer erakutsiko zenioke etorri berri bati?

Zein leku erakutsiko zenizkioke?

JARDUERA4: Herriari buruz etorri berriak jakin beharko lukeena idazteko eskatuko diegu. Alboan, erakutsi nahiko lioketen argazkia itsasteko eskatuko diegu.

Horrelakoa da gure herria eta horrelakoak herritarrak.

Koadernoko 17. orrialdea

JARDUERA5: Ikasleak binaka edo hirunaka jar ditzakegu eta etorri berri bati herriko gauzarik adierazgarrienak erakusteko ibilbide bat antolatzeke eskatuko diegu. Ibilbide horretan zehar zein gauza erakutsiko dizkioten adierazteaz gain, bakoitzari buruz zein azalpen emango lioketen idazteko eskatuko diegu. Nahi adina sakon dezakezue jarduera horretan. Adibidez, ibilbidea argazkiz edo marrazkiz lagundurik prestatzeko eska diezaiekegu. Bestalde, gure ohiturei, jaiei eta abarri buruz ere azalpenak prestatzeko eska diezaiekegu. Era berean, euskarazko oinarritzko hiztegi bat ereprestatu dezakete.

Behar bada gelan izango duzue etorri berriren bat eta oso lagungarria gertatuko zaizue ikasleek prestatuko dituzten gidak.

58. AZPIEGITUREN BEHARRA

Biztanleen hazkunde azkarrak beste era bateko ondorio larriak ere ekarri zituen. 1860an hasiak ziren zerbitzu mailan hainbat akats azaltzen, saneamendu-sistemetatik hasita. Komunak etxeen kanpoaldean egoten zirenez, gorozkiak-eta zuzenean botatzen zituzten zanga edo lubakietara. Lubakietatik, beraz, ur beltzak isurtzen ziren; eta osasun txostenetan esaten denez, ubide horiek kirasdunak izaten ziren.

Lubakiak etxeen atzealdetatik zihoazen, kale-gurutzeetan bat egin arte. Puntu horietan ur beltzak agerian zeuzkaten deposituak sortzen ziren, belenak. Nekazariak arbasta botatzen zuten bertara, ongarria hartitzeko.

1880az geroztik, belenak debekatu ziren.

Herri-gunean osasun egoera hobetzeko hainbat ekimen egin ziren; besteak beste, 1880tik aurrera plaza nagusian eta ondoko kaleetan lurpeko estoldak egin ziren; galtzada-harri zolatua hobetu zuten eta belenak eta lubakiak kendu zituzten.

Industria aurretik antolatua zen ur-hornidurari dagokionez, laster ikusi zuten harekin ez zutela nahikoa biztanleria berria hornitzeko. 1872 arte baina, ez zen konponbiderik aurkitu: Jaizkibelgo Arrarte errekatik ura hartu eta herrira eramaten hasi ziren arte.

Obra horiek udalak eta “Real Cía Asturiana de Minas”ek erdi bana egin eta ura ere halaxe banatu zuten elkarrekin.

1877an, lehen aldiz eman zitzaion herritar bati ura bere etxera eramateko baimena. Hamaika urteren buruan, ordea, errekaen emari txikia zela eta baimen horiek ukatzen hasi ziren; horrela pribilejiatu-taldetxo batek baino ez zuten lortu ura etxean izatea.

Industrializazioak sortutako beharrian berriek eta biztanleriaren hazkunde etengabeak gisako desorekak eragin zituen.

Garrantzi handiko lanak 1880 arte ez ziren hasi: hirigunearen saneamendu orokorra, ur-hornidura, argiteria-hobekuntza, hornidura-merkatua eta abar. Horren guztiaren garapena pixkana egin zen. Bestalde, sendakuntza zerbitzuek, farmaziek eta ikastetxeek 1840an bezalaxe jarraitzen zuten lanean XX. mendeko 60ko hamarkadan; hau da, pertsonal bera eta lan egikera berbera zituzten, ordurako biztanle kopurua bikoiztu bazen ere.

Biztanle kopuruak gora egin arren, udalak ez zuten aurrekontua handitu.

Ezinbestekoa zen diru-sarrera berriak bilatzea. 1884tik aurrera, zergak jarri zitzaizkien ardoari, olioari, urdaiazpikoari eta haragiari. Beraz, Foru Aldundiak produktu horietan inposatutakoei beste zenbait zerga gehitu zizkienez, herriko janarien prezioek gora jo zuten.

Horrela, udal zerbitzuen finantziazioa atzerakoiago bihurtu zen, klase apalen bizkar oinarrituta.

Hori guztia gorabehera, hobekuntza garrantzitsuak ere izan ziren, 1911n inauguratutako garbitegi publiko berria, adibidez, etxeoandreentzat behar-beharrezkoa zena; edota, 1915ean inauguratutako saihesbidea. Horri esker, ordura arte jasandako trafikorik gabe gelditu baitzen Biteri kalea.

59. AZPIEGITURA GEHIAGO

Herri-guneak bizigarritasun arazo larriak izaten jarraitu zuen, biztanleen hazkunde azkarrak, lantegi-pilaketak eta soldata baxuak eragindakoak; baina alde onik ere bazuen: industrializazioak ekarritako teknikak herrian askoz lehenago aplikatu ahal izan ziren baserrian baino. Adibidez, gure herriko tranbia izan zen Gipuzkoan martxan jarritako lehena; telefonoa eta telegrafoa hiriburuan bezalaxe zebiltzan; eta argi elektrikoa 1898an sartu zen lehendabiziko aldiz herriko etxeetan.

Horien hedapena, ordea, goitik behera hasten zen: jende dirudunak lehenasuna zuen, alegia. Udalak hornitutako argi elektrikoaren hedapena adibidez: lehen eskatzaileen zerrendan merkatariak eta eskulangileak agertzen ziren, eta, baita hainbat industria gizon, sendagile, idazkari, maisu eta jornalari bat ere.

1898ko zerrendan 56 abonatu zeuden; 1901ean, 376, erdigunean 546 familia bizi ziren; eta 1903an, berriz, 405 ziren hornidura jasotzen zuten etxeak.

Linea elektrikoa baserrietara hedatzeko artean urte batzuk behar izan ziren. 1910 arte ez zen linea hedatu erdialdetik hurbilen zeuden langileen etxeetara. Urte hartan bertan Alaberga baserriak linearen eskaera egin zuen, eta 1913an linea elektrikoa Morrongilletaraino zabaldu zen.

Telefonoaren edo uraren kasuan gauza bera gertatu zen. Bi kasu horietan, ordea, goitik beherako hedapen hori motelagoa izan zen.

Azpimarratu behar da, hirigunea hain txikia izanik, 4.000 biztanle edo, auzoetan langileak eta burgesak ez zeudela erabat banatuta. Plaza nagusitik hurbil, ordea, badirudi familia dirudunak gehiago zirela txiroak baino; langileak-eta errebaletan eta zabalgunean bizi ziren, gehienbat.

1861ean, herriko kaleetako argiteria olioeko zortzi farolek osatzen zuten. 1867an, berriz, olioak petrolioa ordezkatu zuen. Geroago, 1896an, Papelerarekin egindako kontratu bati esker, kaleko argiteria elektrikoa izango da. Horretarako, egurrezko argi-poste ugari altxa zituzten, haien beso zabalek argi kableak airez eramatea ahalbidetu zutelarik.

Gure herrian, jendearen arteko integrazioa zen gauzarik arruntena. Hori dela eta, langileen bizi-egoera ez zen gune industrial handietakoa bezain izugarria izan, gure herrian zaila baitzen espazialki hobekuntza burgesen alderantz soilik hedatzea.



1925az geroztik Bireben injineruaren Zabaldura Plana martxan zegoenez, hurrengo urrats garrantzitsua herriarentzat behar-beharrezkoa zen ur-ekartze berria egitea izan zen. 1928an inauguratua zuten.

Hurrengo urtean, berriz, garbitegi handiago bat zabaldu zuten. Hala ere, “Federación Local de las Sociedades Obreras” erakundearen eskaerei kasu eginez gero, herriko kezka nagusienetako bat egoera higienikoa zen. Erakunde horrek, 1930eko maiatzaren 1ean Udalari zuzendutako eskaeretan puntu garrantzitsuenak bezala honako hauek hartzen zituen: iturri, bainu publiko eta pixatoki gehiago jartzea, eta herriko lursailen osasun publikoarekiko egoera ikuskatzea.

Udal obra eta zerbitzuen finantziazioa herritarren poltsikoen kontura egin zen. Ez bakarrik herritarren bizi-egoera hobetzeko egiten ziren obratarako, baita industria eta merkataritzako jardunbideei onura handia ekarriko zien azpiegituretarako ere: errepideak, telegrafoa, telefonoa, ur-hornidura, zaintze-lanak eta abar.

Ur-hornikuntzari dagokionean, 1884an hasi zen etxeetako ur banaketa.

Telefonoari dagokionez, 1887an zabaldu ziren lehen sare telefoniko partikularrak. Urte batzuk geroago, 1967an hain zuzen, Udalak baimena eman zion Telefonica konpainiari telefono kabinak jartzeko herrian. 1976an, berriz, Bilbao-Behobiako autopistako lanak amaitu ziren.

Errepideei dagokionez, 1953an Agustinetatik Zamalbidera doan errepidea inauguratu zuten.

Lehenengo semaforoak 1968an ipini zituzten Nafarroako ibilbideko trafikoa arautzeko. 1982an, berriz, itsuentzako semaforoak ipini zituzten ibilbide berean. Horiek izan ziren Gipuzkoan ipini ziren gisa horretako lehen semaforoak.

Iztietako pasealekua oinezkoa bihurtu zen 1980an eta Zumardia erdibitzen zuten Biteri Txikia 1982an itxi zuten autoentzat.

JARDUERA1: Herriko hainbat azpiegituren bilakaera aztertuko dugu segidan. Bilakaera hori era laburrean jasotzen duten testuak eskainiko dizkiegu ikasleei eta, ondoren, hainbat ariketa aurkeztuko dizkiegu.

- *Nola dago argizatua zure kalea?*
- *Nondik doaz gaur egun argindar kableak?*
- *Imajinatu Arramendiko kaskotik herrira begira zaudela gauez. 1861a da, zer uste duzu ikusiko zenukeela?*
- *Eta gaur gauean begiratzerakoan?*
- *Izarrak ere ez zituzten berdin ikusiko... Ba al dakizu zer den argi-kutsadura, zein ondorio dituen, gure herrian ba ote dugun... kontatu, kontatu:*

Koadernoko 18. orrialdea.

JARDUERA2: Jarduera horretan, berriz, uraren inguruko zehaztasunak eta ariketak eskainiko dizkizuegu.

Industrien ugaltzeak eta biztanleriaren hazkuntzak zein ondorio izan ote zituen?

1884an hasi zen etxeetako ur banaketa. 1928an ur ekartze berria inauguratu zuten. Urtegiak egin behar izan zituzten herriak eta lantegiak urez hornitzeko. Ba al dakizu nondik datorren zure etxera heltzen den ura?

JARDUERA3: 1887an ipini zituzten telefonoak herriko etxe batzuetan. Gaur egun etxeetan ez ezik poltsikoetan ere badauzkagu. Kontatuko al zeniguke nola izan zen telefonoaren garapen hori zuen etxean?

JARDUERA4: Jarduera honetan, berriz, azokaren inguruan aritzea proposatuko dizuegu. Gaur egun elikagaiak eskuratzeko beste aukera batzuk badauden arren, urte askotan azoka zen elikagaien hornitzailea. Horregatik, garrantzi handia zuen herrian.

- *Ba al dakizu non dagoen gaur egun azoka?*
- *Non erosten dituzue elikagaiak?*
- *Non saltzen dituzte baserritarrek beren produktuak?*
- *Zein produktu aurki ditzakegu gure azokan?*

Koadernoko 19. orrialdea

60. MUNDUAN NON GAUDE KOKATURIK?

Gure herria munduan non dagoen kokaturik jakiteko hainbat erreferentzia izan behar dira kontuan.

Alde batetik, meridianoak eta paraleloak. Mundua goitik behera eta ezkerretik eskuinera erdibitzen duten marra imajinarioak dira.

Marra bakoitzak zenbaki bat du. Hala, munduaren gerri buelta osatzen duen paraleloari ekuatorea esaten zaio. Gu, ekuatore horretatik iparraldera gaude kokatuta.

0 meridianoa, berriz, Greenwich-eko meridianoa esaten dioguna, gure mendebaldera pasatzen da. Neurri eta kokapen horiek kontuan izanik, gradu eta minutu hauetan gaude kokaturik munduan: $43^{\circ} 18' 45''$ I, $1^{\circ} 53' 55''$ M

JARDUERA1: Ikusi eta ikasitako guztiarekin dagoeneko ongi kokatuta zaude herrian. Baina jakingo ote zenuke gure herria kokatzen...

Gipuzkoan?

Euskal Herrian?

Iberiar penintsulan?

Europan?

Eta munduan?

Hau da, hau nahasmena!

JARDUERA2:Hiru koordenatu dituzu hemen, bat bakarrik dagokio gure herriari, ea zein den!

$20^{\circ} 11' 27''$ H, $130^{\circ} 36' 8''$ M

$38^{\circ} 45' 52''$ I, $140^{\circ} 26' 4''$ E

$43^{\circ} 18' 45''$ I, $1^{\circ} 53' 55''$ M

Beraz, gure herriko koordenatuak hauek dira:

LATITUDEA:

LONGITUDEA:

Koadernoko 20. orrialdea

61. NEURRI GEHIAGO

Bestalde, herriaren beste neurketa bat altuerarena da.

Altuera, itsas mailaren arabera da, eta herrien, mendien eta abarren garaiera kokatzeko erreferentzia gisa balio du.

Baina itsasoaren maila egonkorra ez denez, eta gainera munduko itsaso guztiak ez daudenez altura berean, estatu bakoitzak maila jakin bat hartzen du leku zehatz eta garai jakin baterako. Estatu horretan finkatu nahi den edozein garaiera, maila jakin horrekiko kalkulatu beharko da. Garaiera horiei ortometrikoak esaten zaie.

Espainiako eta Frantziako estatuetan Mediterraneo itsasoarekiko hartzen dira erreferentziak eta ezarririk dagoen maila jakina, Alacant-eko mareografoak jaso zuen 1870 eta 1882 urte artean. Ondoren, era zehatzean kalkulatu dira nibelazio sarea osatzen duten Espainiako estatuko puntuen kotak. Lehen puntua, (NP1), Alacant-eko udaletxera sartzeko eskailerako 3. mailan kokaturik dago eta puntu horren kota, 3,4095 m-takoa da.

Ondoren, eta trenbidearen ibilbidea baliatuz, tren geltokietako itsas mailak finkatu zituzten eta geltokian bertan edo udaletxean jartzen zituzten.

Gaur egun, errepideak erabiltzen dituzte horretarako. Neurtutako puntua iltze baten bidez adierazten da. Iltzea, horma batean edo lurrian egon daiteke. Iltze horiek funtsezkoak dira topografiako lanak egiteko, adibidez, eta kalean neurketak egiten ikusten ditugunean, iltze horiekiko erreferentzia behar dute.

Gure herrian hainbat iltze daude: udaletxean, Panierreko zubian, Alabergan, Orbelen eta abar. Guk, horietatik udaletxekoa aukeratu dugu, hasieran aipatu dugun sare horretakoa baita. Nahi izanez gero, ikasleekin joan zintezkete ikustera. Aurkitzeko nahikoa izango duzue koadernoan ipini dugun argazkia.

JARDUERA1: Hauxe da gure udaletxeko iltzea. Iltze hori, Mediterraneo itsasoaren itsasmailatik 6,294 m-ra dago.

Orain errepidean zehar ipintzen dituzte iltzeak, baina herriko beste txoko batzuetan ere badaude. Hormetan edo lurrian egon daitezke. Ea topatzen

dituzun!

JARDUERA: Foruen plazan lurpeko aparkalekua eraiki nahi izan zuten. Berehala itsasoa agertu zen, ordea.

Zergatik uste duzu gertatu zela hori?

Koadernoko 21. orrialdea.

62. NORTZUK, ZENBAT ETA NOLAKOAK GARA HERRIAN BIZI GARENAK?

Gure udalerririk 31, 9 km. koadroko azalera du. Aurreko unitateetan ikusi genuenez, jende gehiena oso lur esparru txikian bizi gara. Gure udalerriko lur askoan ez da inor bizi, alegia.

Beraz, horrek dakar udalerriko zenbait lurretan pilatuta bizi behar izatea.

Gaindegiak 2006an *Euskal Herria datuen talaiatik* lanean agertzen duenez, 2005ean herritarrak 37.873 ziren eta herriko dentsitatea 1.187,2koa zen.

Lan horretan nortzuk garen ere aurkitu dugu, zein adin dugun, zenbatek eta non lan egiten dugun, zenbat etxebizitza ditugun, horietatik hutsik zenbat dauden eta abar. Datuak hurrengoak dira:

EMAKUMEAK	19.501
GIZONEZKOAK	18.723
0-19 urtekoak	5.923 biztanle
20-59 urtekoak	23.920 biztanle
60+ urtekoak	8.381 biztanle
ZAHARTZE INDIZEA	141,5
OKUPATUAK	17.242 lagun
1. SEKTOREA (nekazaritza)	184 lagun
INDUSTRIA	6.467 lagun
ZERBITZUAK	10.591 lagun
HIZTUNAK 2 urtetik gorakoak	37.261 lagun
EUSKALDUNAK	12.096 lagun

IA EUSKALDUNAK	7.701 lagun
ERDALDUNAK	17.464 lagun
FAMILIA ETXEBIZITZAK	15.597 etxe
ETXEBIZITZA NAGUSIAK	14.084 etxe
HUTSAK eta BIGARREN ETXEBITZAK	1.513 etxe
ALOKAIRUAN	880 etxe

Iturria: *Euskal Herria datuen talaiatik 2006*. Gaindegia.

JARDUERA: Gure herriak 31,9 kilometro koadroko azalera du. Bertan, 2005ean, 37.873 lagun bizi ginen.

Zenbatekoa zen, hortaz, gure herriko dentsitatea?

Gogoratu dentsitateak kilometro koadroko zenbat jende bizi den adierazten duela.

Gure herriko dentsitatea 2005ean:

Koadernoko 21. orrialdea.

63. IKASITAKOAZ HAUSNARTUZ

Beste unitateetan egin bezala, bosgarren honen amaierara heldu garen honetan, unitate honetan aztertu ditugun gaien gainean hausnartzea proposatuko dizuegu.

Hausnarketa horrek, ikasitako kontzeptuen gainean sakontzea baino, ikasleak bere burua ebaluatzeko aukera eskaini nahiko luke. Zer dakien orain lehen ez zekiena, zerk harritu duen, zer gustatu zaion zer ez eta abar izango dira, hortaz, proposatuko dizkiegun ildoak.

Jarduera horiek banaka egitea aholkatzen dizuegu. Denbora eskaini ikasleak patxadaz hausnar dezan egin duen lanaren gainean eta nola sentitu den.

Ondoren, komenigarria ikusten baduzue, talde txikitan edo talde handian konpartitu dezakete adierazitakoa. Hala, ikuspuntu partikularretik taldeko ikuspuntura pasako dugu informazioa eta gelako iritzia edo inpresioa izango dugu.

JARDUERA1: Zer da lehen ez zenekiena eta orain badakizuna.

JARDUERA2: Zer da lagunari galdetuko zeniokeena ulertu duen jakiteko:

*Gerrez
Industrializazioaz
Hirigintzaz
Bizi garen jende-taldeen
Herriko kokapenaz*

*JARDUERA3 Zer da gehien gustatu zaizuna.
Zer da gutxien gustatu zaizuna.
Zer da gehien harritu zaituena.*

JARDUERA4: Zer da unitateaz etxean kontatuko zenukeena.

Koadernoko 22. orrialdea.

GEHIAGO JAKITEKO

BIBLIOGRAFIA

- BARCENILLA, M.A.: LA PEQUEÑA MANCHESTER. Origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano Errenteria (1845-1905), Gipuzkoako Foru Aldundia, 1999.
- BOZAS URRUTIA, E.: Errenteria kondairan eta ipuin-zaharretan, Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones S.A, Donostia, 1976.
- ELBERDIN, Luis: Orereta izena eta izana, Orereta, 1995.
- ELBERDIN, Luis: Hiria, Orereta, 1995.
- GAMON, Juan Ignacio: Noticias historicas de Renteria, 1930.
- GOÑI GALARRAGA, Joxeba M.: Historia de Renteria, Caja de Ahorros Municipal, Donostia, 1969
- LARRAÑAGA ODRIÓZOLA, C.: Del bertsoarismo silenciado, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- ZENBAITEN ARTEAN: Errenteriako Historia, Errenteriako Udala.

GERRA ZIBILA ETA FRANKISMOA

- MARTINEZ LIZARDUIKOA, Ekain; OSA, Nekane: Gerra Zibila Euskal Herrian, Gaiak argitaldaria, Donostia, 2006
- EGAÑA, Iñaki: Los crímenes de Franco en Euskal Herria, Txalaparta argitaletxea, Tafalla, 2009
- LAN KOLEKTIBOA: Gernikako seme-alabak. Euskal Herria 1960-2010, Euskal Memoria Fundazioa, 2010

GERRA GARAIAN HERRIKO FAMILIA BATI BURUZKOA

- HERRIKO TALDEA: Izan zirelako gara, garelako izango dira. Memoria Historikoa berreskuratu etorkizuna eraikitzeko, 2010

ZAPIRAIN ANAIK

- BERTSOLARIYA aldizkaria, 4. zenbakia, 1993ko abendua, Xalbador Zapirain Ezeiza Ataño-ri elkarrizketa, 4-7. orr.
- ZAVALA, Antonio: Zapirain anaiak, Auspoa liburutegia, Tolosa, 1975.

JOXEPA ANTONI ARANBERRI PETRIARENA

- ZAVALA, Antonio: Errenteria'ko bertsolari zaarrak, Auspoa liburutegia, Tolosa, 1968.
- "Emakumeak plazara", in Bertsolari, 17 (1995), 21-23

IKUS-ENTZUNEZKOAK

- TAPIA, Joseba.: Agur Intxorta maite, Gaztelupeko hotsak, 2001, CDa.

SAREAN

GERRA KARLISTAK

Zumalakarregi Museoa
<http://zm.gipuzkoakultura.net>

AZPIEGITURAK

<http://www.errenteria.net>

INDUSTRIALDEA

http://www.mapako.eu/berri/index_eu.html

GALLETERA, LANERA ETA BESTE LANTEGI BATZUK

http://www.youtube.com/watch?v=99AxWTL7_70&feature=related

GERRA ZIBILA

<http://www.youtube.com/watch?v=auOZ8sOokMk&NR=1>

FRANKISMOA

Jesus Aranburu Oskoz-en lekukotza

<http://www.oarsoaldekohitza.info/paperekoa/2010-01-22/p00004004/%C2%ABGaltzaileen bandoan egotea tokatu izan zait beti%C2%BB.htm>

XENPELARREN BERTSOAK

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/X/Xenpelar020.htm>

TENER 13 en el 36. Dokumentala

http://www.katiuskak.com/'page_id=20